

# elkar-ezagutuz

## reconociéndonos

Baliteke asoziazioari eman genion izenak, Zuhaitzpeanek, irudi eta izena ematen digun zuhaitzak, J. Legorburu margolariaren lana, argien laburbiltzea gidatu gintuen asmoa, eta orain, gainera, Mario Onaindiaren figura gogora ekartzeko baliagarri zaiguna, harengandik hartu baikenuen ideia. Gernikako haritz xaharrari bainoago, haren abarora biltzen ginen espazioari erreferentzia egiten diona. Benetako Herri-sinbolo izan zen zuhaitzari, ideologia guztietako euskaldunen erreferente izan zen zuhaitzari. Kolore askotako egiten dute zuhaitza eratzen duten hitzek. "Eta kantatu egiten diot zuhaitz gazteari" idatzi zuen Mario Onaindiak.

Es el nombre que decidimos darle a la asociación, Zuhaitzpean, el árbol que nos da nombre e imagen, obra del pintor J. Legorburu, lo que, tal vez, mejor resuma el espíritu que nos guió, y, que nos sirve ahora para recordar la figura de Mario Onaindia, de quien tomamos prestada la idea. Nombre que no sólo hace referencia al viejo roble de Gernika, sino al espacio donde a su sombra nos reuníamos. Al árbol que fue verdadero símbolo de país, referente común de vascos de toda ideología. Es un árbol moldeado por palabras que lo conforman en múltiples colores. "Y canto al árbol joven" escribió Mario Onaindia.

MARIO ONAINDIAREN OROIMENEZ

DEDICADO A MARIO ONAINDIA

.

# elkar-ezagutuz
## reconociéndonos

Lehen argitalpena / Primera edición

© Asociación Sociocultural ZUHAITZPEAN gizarte eta kultur elkartea:
Apdo correos 438 Posta Kutxa
20800 Zarautz. Gipuzkoa
E-mail: zuhaitzpean@zuhaitzpean.net
www.zuhaitzpean.net
Depósito legal: VI 125/06
I.S.B.N: 84-689-7021-2

ITZULPENA / TRADUCCIÓN:
Martín Arregi Anasagasti
Alain Lopez de Lacalle

KOORDINATZAILEA / COORDINADOR:
Iker Azpeitia

MAKETATZE / MAQUETACIÓN:
Jose Tamayo

INPRIMATEKA / IMPRESIÓN:
Gráficas Santa María

ZUHAITZPEANen jabetza, 2005
Testuaren bikoizketa baimendua egilea eta dokumentu originalaren kokapena izendatuz, ez horrela margoak.
Doako liburua, salmenta galarazita.
Argitalpen elektroniko osoa www.zuhaitzpean.net helbidean.

Propiedad de ZUHAITZPEAN, 2005
Permitida la reproducción del texto, no así de los cuadros, citando al autor e incluyendo un enlace al documento original.
Libro de distribución gratuita, prohibida su venta.
Disponible edición electrónica completa en www.zuhaitzpean.net

Artikuluetako irizpideak egileen erantzukizun dira, ZUHAITZPEAN ez ditu zergatikan bere egin behar.
Las opiniones emitidas en los artículos de este libro corresponden exclusivamente a sus autores, ZUHAITZPEAN no se identifica necesariamente con ellas y declina cualquier responsabilidad.

# elkar-ezagutuz
# reconociéndonos

Gorka Landaburu
Joseba Arregi
Kepa Aulestia
Alfonso Alonso Aranegui
Emilio Guevara
Daniel Innerarity
Antonio Beristain
Javier Elzo
Pedro Gorrotxategi Gorrotxategi
Jose Luis Munoa Roiz
Carlos Martínez Gorriarán
Kati Gutiérrez

## Reconociéndonos

El presente libro es fruto de la idea que inspiró a nuestra asociación desde su misma fundación. Más allá del interés por la política y la indignación por la constante degradación que la persecución terrorista y diversas prácticas irresponsables le ocasionan, nos unía y nos sigue uniendo una firme convicción: la dignidad de la palabra.

Reivindicamos el espacio público, la palabra arrebatada que, sin ninguna pretensión de verdad inamovible, fluya entre nosotros. Más allá de siglas políticas, de ideologías que nublen la visión de esta sociedad ensimismada, el gesto solidario y amistoso es nuestra carta de presentación. Sin tibiezas, con la firmeza de unos principios democráticos que son conscientes de, en demasiadas ocasiones, la necesidad de decir no.

Es el nombre que decidimos darle a la asociación, Zuhaitzpean, el árbol que nos da nombre e imagen, obra del pintor J. Legorburu, lo que, tal vez, mejor resuma el espíritu que nos guió, y, que nos sirve ahora para recordar la figura de Mario Onaindía, de quien tomamos prestada la idea. Nombre que no sólo hace referencia al viejo roble de Gernika, sino al espacio donde a su sombra nos reuníamos. Al árbol que fue verdadero símbolo de país, referente común de vascos de toda ideología. Es un árbol moldeado por palabras que lo conforman en múltiples colores. "Y canto al árbol joven" escribió Mario Onaindía.

Los amigos que formamos Zuhaitzpean, creemos que el nuevo consenso que se debe impulsar, sólo será posible si defendemos los valores de la vida, la libertad y el pluralismo político y cultural, en los que se debe cimentar cualquier proyecto político de convivencia. Como, claramente, dijo Natividad Rodríguez en su comparecencia en el Parlamento Vasco: "Por ello, consideramos que cualquier proyecto de convivencia, para ser moral, deberá respetar la memoria de las víctimas; para ser legítimo, deberá plantearse en condiciones de igualdad y libertad para todos los participantes; y para ser legal, deberá cumplir las reglas de juego preestablecidas, que en democracia se plasman en las normas legítimamente aprobadas". Hacemos nuestras sus palabras.

A lo largo de tres años, en Zuhaitzpean, de acuerdo con la ética cívico-política que compartimos, hemos propuesto tratar la gestión de nuestra convivencia (nº0: Consenso político), los significados comunes en los que se basa, esos territorios urbanos (nº2: Ciudades Vascas: pluralismo y diversidad) en los que se visibiliza cómo el proceso por el cual se persigue que el individuo logre su emancipación como persona autónoma y autosuficiente en su relación con el entorno/medio y su adaptación social es posible aún en estos inciertos tiempos de globalización... Temas, todos ellos, tratados en las charlas que tuvieron lugar

entre Noviembre del 2002 y Enero de 2003, en la Universidad del País Vasco.

La dignidad de la palabra, ajena al ruido y la furia de la contienda política, es lo que tratamos de acercar al lector en estas páginas: la palabra susurrada, la palabra recuperada arduamente de entre los escombros del odio que el totalitarismo, la encarnación del silencio, pretende imponernos. Reconociéndonos. Reconocer, que significa gratitud por algún beneficio, pero también volver a conocerse, elkar-ezagutu que diríamos en euskara. Por esta misma razón, este proyecto se concibe como un principio, como un incentivo y no como un fin en sí mismo; es el reconocimiento del otro lo que subyace, reconocernos en el otro, contra la indiferencia, contra las abstracciones fútiles que devoran lo único que prevalece: las personas, por encima de toda idea, y de todo proyecto.

Como un ejercicio de responsabilidad, de recuperación de la memoria histórica, es como entendemos este proyecto; historia configurada por las aportaciones, algunas de ellas injustamente olvidadas, de personas de múltiples sensibilidades, de diversos ámbitos (social, político, cultural) que muestran la pluralidad de esta sociedad. Pluralidad de ayer y de hoy. Las glosas escritas muestran ese ejercicio de aprecio, de reconocimiento de la valía, desde diferentes sensibilidades y vivencias, o, simplemente, desde el alegato contra el olvido.

Este Reconociéndonos es diálogo que entendemos necesario para esta sociedad, diálogo de la memoria, entre ciudadanos libres, no el diálogo de los que se dicen de mirada limpia y proclaman su objetividad escondidos detrás de un relativismo moral repugnante. No. Será la justicia la paz, o no será.



## Elkar-ezagutuz

Esku tartean duzun liburu hau, elkarte honen sortze beretik gidatu gaituen ideia baten fruitua da. Politikarekiko interesaz haraindi, jazarpen terroristak eta erresponsabilitate eskaseko hainbat jarrerek hari eragiten dioten etenik gabeko degradazioaz indignaturik, sinesmen sendo batek batu izan, eta batzen jarraitzen gaitu: hitzaren duintasunak.

Plaza aldarrikatzen dugu, espazio publikoa, ebatsitako hitza, egia mugiezin izateko inolako pretentsiorik gabe, gure artera jalgi dadin. Sigla politikoetaz haraindi, bere baitara bildutako gizarte honen ikuspegia lainotzen duten ideologietaz haraindi, elkartasunezko keinu adiskidetsua damaigu denen jakitera. Epelkeriarik gabe, sarriegi ezezkoa ematearen beharraz kontziente diren printzipio demokratikoen sendotasunaz.

Baliteke asoziazioari eman genion izenak, Zuhaitzpeanek, irudi eta izena ematen digun zuhaitzak, J. Legorburu margolariaren lana, argien laburbiltzea gidatu gintuen asmoa, eta orain, gainera, Mario Onaindiaren figura gogora ekartzeko baliagarri zaiguna, harengandik hartu baikenuen ideia. Gernikako haritz xaharrari bainoago, haren abarora biltzen ginen espazioari erreferentzia egiten diona. Benetako Herri-sinbolo izan zen zuhaitzari, ideologia guztietako euskaldunen erreferente izan zen zuhaitzari. Kolore askotako egiten dute zuhaitza era tzen duten hitzek. "Eta kantatu egiten diot zuhaitz gazteari" idatzi zuen Mario Onaindiak.

Zuhaitzpean osatzen dugun lagunok, sustatu beharreko balizko kontsentsu berria, bizitza, askatasun eta aniztasun politiko eta kulturalaren baloreen defentsan soilik ikusten dugu, elkarbizitzarako edozein proiektu politikoren oinarri behar duten baloreotan, alegia. Eusko Legebiltzarraren aurrean Natividad Rodríguezek argi eta garbi esan bezala: "Por ello, consideramos que cualquier proyecto de convivencia, para ser moral, deberá respetar la memoria de las víctimas; para ser legítimo, deberá plantearse en condiciones de igualdad y libertad para todos los participantes; y para ser legal, deberá cumplir las reglas de juego preestablecidas, que en democracia se plasman en las normas legítimamente aprobadas". Geure egiten ditugu bere hitzak.

Hiru urtetan zehar, Zuhaitzpeanen, partekatzen dugun etika zibiko-politikoarekin ados, gure elkarbizitzaren gestioaz hitzegitea proposatu dugu (nº0: Hitzarmen politikoa), oinarritzat dituen esanahi amankomunetaz; eremu urbanoetaz (nº2: Euskal ziutatea: Aniztasun eta dibertsitatea) ere eztabaidatu nahi izan dugu, non norbanakoak ingurune/medioarekiko, eta adaptazio sozialarekiko harremanean pertsona aski eta autonomo gisara bere emantzipazioa lortzea bilatzen duen prozesuak, areago globalizazio garai zalantzazko hauetan ere, funt-

zionatzen duela agerian ikus daitekeen. Guztiak Euskal Herriko Unibertsitatean 2002ko azarotik 2003ko urtarrilera bitartean antolatu genituen elkarrizketetan trataturiko gaiak.

Hitzaren duintasuna da, borroka politikoaren hots eta amorrutik urrunduta, irakurleari orrialde hauen bidez eskuratu nahi dioguna: hitz xuxurlatua, isiltasunaren gudarostea den totalitarismoak inposatu nahi digun gorrotoaren hondakinen artetik nekez berreskuraturiko hitza. Elkar ezagutuz. Errekonozituz, onuraren batengatiko eskerrona esan nahi duena, baina baita berriz ezagutzea ere, reconocernos, gazteleraz esango genukeen bezala. Arrazoi honegatik, hain zuzen ere, ikusten dugu proiektu hau hasiera bat bezala, akuilu bat bezala, eta ez helburu gisa bere baitan; bestearen errekonozimendua da hondoan geratzen dena, geure burua bestearenean islatzea, indiferentziaren kontra, gailentzen den bakarra erasaten duten abstrakzio hutsalen kontra: pertsonak, ideia ororen gainetik, eta proiektu ororen gainetik.

Erantzukizun ariketa bat bezala, memoria historikoaren berreskurapen bezala ikusten dugu proiektu hau; gizarte honen aniztasuna erakusten duten alor ezberdinetako (soziala, politikoa, kulturala) eta sentsibilitate ezberdinak dituzten pertsonen ekarpenek osaturiko historia, batzuk injustuki ahaztuak izan diren arren. Gaurko eta atzoko aniztasuna. Idatzitako glosa hauek onespen ariketa hori, baliogarritasunaren errekonozimendu hori erakusten dute, sentsibilitate eta bizikizun ezberdinetatik, edo besterik gabe, ahanzturaren kontrako alegatutik.

Elkar-ezagutzen hau gizartearentzat beharrezko ulertzen dugun elkarrizketa da, memoriaren elkarrizketa, hiritar libreen artekoa, eta ez begirada garbiarekin beren objetibitatea aldarrikatzen dutenena, errelatibismo moral nazkagarri baten atzean ezkutaturik. Ez. Ez baita bakerik justizia ezpada.



## Pluralidad y convivencia

Zuhaitzpean se define como una revista que busca el espacio común y el debate abierto. No podemos más que agradecer esta iniciativa que parte de un grupo de jóvenes vascos que desde opciones ideológicas e identidades diferentes, no dudan en sumergirse en la reflexión, en el análisis para dar voz a la pluralidad y salir del dogmatismo y del discurso único que tanto atormenta nuestra sociedad.

Este aire fresco basado en el diálogo, el debate y en la construcción de un marco de convivencia, es obviamente opuesto al discurso intolerante e intransigente que tanto caracteriza a nuestra clase política.

Es hora de abrir las ventanas, de oxigenar nuestra conciencia encorsetada durante muchos años por culpa de la violencia. Una sociedad nunca será libre mientras viva bajo el yugo del terror y del fanatismo. El miedo, el egoísmo y el individualismo, son un campo abonado para los que no respetan las reglas de juego y la pluralidad.

En su declaración de principios Zuhaitzpean rechaza la violencia, pretende que se libere la reflexión política de la imposición violenta a través de la movilización integradora con el apoyo de la ciudadanía humana para la convivencia.

En este primer libro de Zuhaitzpean, se aborda con gran acierto un genero periodístico poco usual, en el que mediante una personalidad reconocida se desglosa la figura de otra persona de renombre aunque haya defendido opciones diferentes. Este ejercicio hábil e interesante nos permite disfrutar de la opinión siempre relevante de Javier Elzo, Joseba Arregi, Alfonso Alonso, Carlos Martinez Gorriraran, Daniel Innerarity, Antonio Beristain, Kati Gutiérrez, Kepa Aulestia, Emilio Guevara, José Luis Munoa y Pedro Gorrotxategi.

Todos ellos a su manera, con su propio estilo, nos desgranan con sensibilidad y a veces con ternura la vida y figura de protagonistas de renombre y talento como han sido Jorge Oteiza, Julio Caro Baroja, Miguel Unamuno, Ignacio Aldecoa, Mario Onaindia, Fernando Buesa, Martin-Santos o son María Teresa Castells, Pilar Ruiz o Xabier Lete.

La recopilación de todos estos artículos, encuadrados en el proyecto RECONOCIENDONOS de la asociación Zuhaitzpean, nos acerca a estas personalidades del mundo de las letras, del arte o de la política reconocidos públicamente pero muy poco valorados por la gran mayoría de nuestra ciudadanía.

Los autores de los artículos con sutileza nos desvelan con rigor y también con cariño el compromiso y la defensa de los valores esenciales que siempre defendieron hombres de la talla de Unamuno, Caro Baroja o Jorge Oteiza.

Sin embargo, me quedo también con la sensibilidad de Pilar Ruiz, madre de Joseba Pagazartundua, una mujer luchadora y comprometida desde su infan-

cia con la libertad y la justicia. Esta mujer de temperamento que perdió a su hijo, asesinado cobardemente por ETA, pide que la pesadilla vasca tenga de verdad una salida y así lo expresa a Kati Gutiérrez, otra víctima del terrorismo, cuando afirma: "Que se vayan los demonios identitarios sin arrastrarnos al abismo. Que tengamos paz sí, pero una paz justa y no la de los cementerios. Que se haga justicia con las víctimas..."

Paz y libertad es lo que reclamamos muchos vascos en nuestro país. Ya lo señalaba Manuel Azaña, al manifestar: "La libertad no hace feliz a los hombres, los hace, sencillamente hombres":

**Gorka Landaburu**



## Aniztasuna eta elkarbizitza

Zuhaitzpean aldizkariak, espazio komunaren eta eztabaida irekiaren bilaketan definitzen du bere burua. Ezin dugu eskertu besterik opzio ideologiko eta identitate ezberdinetatik etorririk, gogoetan, analisian, murgiltzeari beldurrik izan gabe, aniztasunari ahotsa emanik gure gizartea hainbeste pairarazten duen dogmatismo eta diskurtso bakarretik atera nahi duen gazte euskaldun hauen ekimena.

Elkarrizketan, eztabaidan eta elkarbizitzarako marko baten eraikuntzan oinarrituriko aire fresko hau, inolako zalantzarik gabe, gure klase politikoaren adierazgarri den diskurtso intolerante eta intransigentearen zeharo kontrakoa da.

Leihoak irekitzeko ordua dugu, indarkeriaren erruz hainbeste urtetan enkortsetaturiko kontzientzia oxigenatzeko ordua. Gizarte bat ez da inoiz aske izango horrorearen eta fanatismoaren uztarriaren pean. Izua, egoismoa, indibidualismoa, joko-arauak eta aniztasuna errespetatzen ez dituztenentzat soro aberatsak dira.

Zuhaitzpeanek bere printzipioen deklarazioan indarkeria gaitzesten du, gogoeta politikoa bortizkeriaren inposiziotik askatu nahi du mobilizazio integratzailearen bidez, elkarbizitzarako giza hiritargoaren laguntzaz.

Zuhaitzpeanen hirugarren ale honetan, eta ondo asmatuz gainera, oso ohikoa ez den genero periodistiko bat lantzen da, non pertsonaia ezagun baten bidez ospe handiko beste pertsona baten figura desglosatzen den, nahiz eta azkenak beste opzio politiko batzuk ordezkatu. Ariketa habil eta interesgarri honek beti ere aipagarriak diren Javier Elzo, Joseba Arregi, Alfonso Alonso, Carlos Martínez Gorriarán, Daniel Innerarity, Antonio Beristain, Kati Gutiérrez, Kepa Aulestia, Emilio Guevara, José Luis Munoa eta Pedro Gorrotxategiren iritziez gozatzeko aukera ematen digu.

Guzti hauek, bakoitzak bere modura, bere estilo propioan, sentsibilitatez, eta sarritan samurtasunez Jorge Oteiza, Julio Caro Baroja, Miguel Unamuno, Ignacio Aldecoa, Mario Onaindia, Fernando Buesa, Maria Teresa Castells, Pilar Ruiz edo Xabier Lete bezalako talentudun eta ospedun protagonisten figurak eta bizitzak esplikatzen dizkigute.

Artikulu hauen bilketak, aldizkariaren ELKAR-EZAGUTUZ proiektuan kokatuak, publikoki errekonozituak diren letren, artearen eta politikaren munduko pertsonalitate hauek hurbiltzen dizkigute, zeinak sarritan gizartearen gehiengoak ez dituen behar hainbat baloratzen.

Artikuluen autoreek sotilki argitzen dizkigute zorroztasunez, eta baita kariñoz, Unamuno, Caro Baroja edo Jorge Oteizaren gisako gizonek beti defendatu zuten konpromezua eta oinarrizko baloreen defentsa.

Hala ere, Pilar Ruiz-en sentsibilitatea ere nabarmendu nahi dut, Joseba Pagazaurtunduaren ama, emakume borrokalaria, umetatik askatasun eta justiziarekin konprometitua. ETAren esku koldarretan semea galdu zuen tenperamentu sutsuko emakume honek euskal amesgaiztoak benetako irteera bat izan dezala eskatzen du, eta horrelaxe adierazten du Kati Gutiérrez-ek, terrorismoaren beste biktima bat berau, zera dioenean: "Doazela deabru identitarioak baina gu amildegian behera tira gabe. Izan dezagula bakea, bai, baina bake justu bat, eta ez hilerrietako bakea. Justizia egin dadila biktimekin..."

Bakea eta askatasuna da euskaldun askok gure herri honetan exigitzen duguna. Horixe esaten zuen Manuel Azañak jada, zera zioenean: "askatasunak ez ditu gizonak alaitzen, besterik gabe gizon egiten ditu".

**Gorka Landaburu**



# 01.

## Mario-rekin bidean
## De camino con Mario

**Joseba Arregi**



© Oscar Barrera

## Mario-rekin bidean

Hilabete zenbait igaro da Mario gure artetik joan zenetik. Mario-k bere bidea amaitu du. Berak pertsona bezala egin zezakeena, bere gizatasun handian bildurik zegoena. Bere ideiak eta ametsak oraindik ibilbide luzea izan dezakete. Mario-k bere bidea amaitu baldin badu ere, euskal gizarteak oraindik badu biderik egiteko. Egiteko asmorik izango balu, aurrera joateko borondaterik bilduko balu bere baitan, bere barnean. Etorkizunik badagoela sinestuko balu benetan: ez ezaguna zaigun bidearen jarraipen hutsa litzatekeena, ez iraganaren ondorio huts litzatekeena. Zerbait berriaren eremu izan daitekeena baizik.

Bainan horretarako beharrezkoa da bidean jartzea, Mario bezala. Bidean jartzeak, ordea, bete errazak ez diren eskakizunak ditu berekin. Bidean jartzeak atzokoari agur esateko prest egotea esan nahi du. Bidean jartzeak etxeari agur esatea esan nahi izan dezake. Bidean jartzeak haurtzarotik urruntzea esan nahi du. Bidean jartzeak ezagunari adio esan eta ezezagunari ateak, edo leihoak, irekitzea esan nahi du. Bidean jartzeak arriskuak bizkarrean hartzea esan nahi du. Bidean jartzeak erromes izatea, emigrante izatea esan nahi du.

Gure gizartean, ordea, besteak dira, antza, indarrean dauden balioak: gu beti berdin, gu betikoak, gu bertakoak, gurea betikoa, aldaezina. Guk beti berdina esan dugu. Gu ez gara aldatzen. Erroak sendo gure lurrean sartuta. Baserrikoak gara denok. Eusko lurra da gure sortze mitoa. Guztia da aldakorra, gu ezik, gure usteak ezik, gure sinesmenak ezik. “Eusko lurrean zutunik...”, lurraren balioaz gaindi, betikotasunaren balioaz beste, betikoarekiko leialtasunaz aparte ezer ez balego bezala. Beti berean iraun, betikoari eutsi, bere horretan jarraitu: euskaldun izatearen laburpen betea.

Mario-k, aldiz, bidea aukeratu zuen. Bideak aldaketa esan nahi du. Eta Mario-k ez zion aldaketari, aldatzen joateri muzin egin. Ez zen hasierako lekuan gelditu. Ezta hasierako lekutik urruntzen hasi ahal izateko gaztetan, ohizkoa omen zen bezala, errebeldiaren indarrak bereganaturik hartu zuen lekuan gelditzeko. Bere bidea bidean jarraitzea zen. Ez iraganeko bidetik kolpetik aldendurik hartutako bidean betirako gelditzea. Berarentzat baliozkoa zena zera zen: beti bidean egotea, eta beti bidean egonik iraganeko bideak behin eta berriro berriki irakurtzea, iraganeko bidean bertan bide berrien aztarnak aurkitu ahal izateko,



## De camino con Mario

Han transcurrido varios meses desde que Mario nos dejó. Ha acabado su camino. Lo que él pudo hacer, lo que estaba englobado en su enorme humanidad. Sus ideas y sueños pueden aun tener un largo camino por delante. Aunque Mario haya acabado el suyo, a la sociedad vasca aun le queda un largo camino por recorrer. Si tuviera intenciones de hacerlo, si reuniese la suficiente voluntad en sí misma, en su interior, para seguir adelante. Si realmente creyese que existe un futuro: no la simple continuación del camino que ya conocemos, no el que fuese la simple consecuencia del pasado. Si no el que puede ser el ámbito de algo nuevo.

Pero para ello es necesario ponerse en camino. Como Mario. Pero ponerse en camino trae consigo exigencias que no son fáciles de cumplir. Ponerse en camino significa estar dispuesto a decir adiós al ayer. Ponerse en camino podría significar tener que decir adiós al hogar. Ponerse en camino significa alejarse de la infancia. Ponerse en camino significa despedirse de lo conocido y abrir las puertas, o las ventanas, a lo desconocido. Ponerse en camino significa cargarse peligros a la espalda. Ponerse en camino significa ser peregrino, emigrante.

Pero en nuestra sociedad parecen ser otros los valores que predominan: nosotros siempre los mismos, nosotros los de siempre, nosotros los de aquí, lo nuestro de siempre, invariable. Nosotros siempre hemos dicho lo mismo. Nosotros no cambiamos. Nuestras raíces, profundas en la tierra. Todos somos de caserío. La tierra vasca es nuestro mito de creación. Todo es variable, salvo nosotros, salvo lo que pensamos, salvo nuestras creencias. "De pie en la tierra vasca...", como si más allá del valor de la tierra, del valor de lo perenne, de la lealtad hacia lo perenne no hubiese nada. Mantenerse siempre en lo mismo, aferrarse a lo de siempre, seguir en nuestras trece: resumen completo del ser vasco.

Mario, en cambio, escogió el camino. El camino significa cambio. Y Mario no rehusó el cambio, el ir cambiando. No se quedó en la posición inicial. Tampoco se quedó en la posición que ocupó tras haber asumido las fuerzas de la rebeldía, que debían ser comunes, en su juventud para poder moverse de la posición inicial. Su camino era seguir en el camino. No quedarse para siempre en el camino escogido al alejarse bruscamente del camino del pasado. Para él lo válido era estar en el camino, y, manteniéndose siempre en él, volver a releer una y

etorkizun gai liratekeen antzinako eta ez hain antzinako bide ahaztuak, bide ezkutuak, bide ezkutatu eta estaliak. Jakin bai baitzekien iraganaren defendatzailerik sutsuenak gaurkotasunean agintzen duten interesdunak direla, ez iraganeko ustezko balioen lilurak eraginda, gaur bakoitzeko interesek eraginda baizik.

Ezkutatu izan baldin bada ere Mario-k iraultzaile izaten jarraitu zuen bere bizitza guztian: iraganeko historian aukera berriak ikusteko gaitasuna ematen zion iraultzaile begiz horniturik, eta horregatik etorkizun berriak amesteko gaitasuna bizitza guztian jorratzen jarraitu zuena. Ingurua kontutan izanik, ingurukoek egiten zutenari arreta gehiegirik eskaini gabe. Beti bidean egoteari leial. Nahiz eta leialtasun hori askok eta askok aldakortasun barregarri lez mesprezatu.

Mario-ren bizitza samurragoa izan zitekeen beste askok burututako itzulbideari ekin izan bazion: abertzaletasunetik abiatu, abertzaletasunaren kritika marxistara heldu, eta urteak joan ala, marxismoaren ximeltzearekin batera, nolabaiteko abertzaletasunera itzuli. Joan-etorriko bidea. Nahiz eta urrutiratze minberatsuaren urratsak eman gaztetan, etxera itzuli beharrari amore eman azkenean.

Ez. Ez zen Mario-ren estiloa. Ez zen gaztetan abertzaletasunetik alferrik urrundu. Abertzaletasunetik, ez euskal herritik, ez euskal historiatik, ez euskal gizartetik. Alderantziz: abertzaletasunetik urruntzea ezkutatutako euskal historiara hurbiltzea izan bai zen berarentzat, estalirik zegoen euskal gizartera itzultzea, aginteez hornitutako interesek estalitako gizon-emakumeen eta hauek burututako ekintzen historiara hurbiltzea. Abertzaletasunak gorde nahi zuela zioen guztia, bainan benetakoa, gorde eta garatu ahal izateko abertzaletasunaren kritikarekin jarraitu beharra ikusi zuen Mario-k, eta horretan jarraitu zuen bizitza osoan. Gaztetan emandako pausoaren esanahi sakona behin eta berriz deskubrituz. Inolako damuren eraginik gabe, gehiegi baitziren, hala uste zuela uste dut nik, eta baitira gaztetako urratsa erru zela sentituz damuaren eraginez itzulbidean gaztetasuna, orduko ametsak, orduan hasitako bidea, beraien nortasuna guztiz desegindakoak. Eta desegiten duten guzti horren erruduna, noski, beraiengandik kanpora aurkitzen dutenak.

Mario-k amaitu du bere bidea. Bere asmoak eta ideiak bizirik iraun dezakete. Jakin beharrekoa euskal gizarteak bideari ekingo dion ala ez da. Euskal gizartean inor egongo den, une bakoitzeko taktika politiko guztiak gaindituz, ez sinpleki baztertuz, Mario-ren bideari jarraipenik emateko. Horretarako, ordea, beharrezkoa da Mario-k zekien zerbait gogora ekartzea: historia ez dela egun batean hasten ez amaitzen; historiak bide asko dituela; historia, batez ere gizarte baten historia, ez dela gaurkotasunari lotutako taktika batean agortzen. Ikasia baitzuen bere azterketa historikoei esker gaurrari, orainari gehienik lotzen zaiona agintedunen interesak direla, ez gizartearen historiaren interesak, are gutxiago gizartearen etorkizunaren interesak.




otra vez los caminos del pasado, para poder encontrar en ellos el rastro de los nuevos caminos, caminos pasados y no tan pasados que podrían ser tema de futuro, caminos ocultos, caminos ocultados y tapados. Pues bien sabía que los defensores a ultranza del pasado son los interesados ostentadores del poder en la actualidad, no inspirados por la admiración de supuestos valores de antaño, sino provocados por los intereses de cada hoy.

Aun habiéndose escondido en ocasiones, Mario siguió siendo revolucionario toda su vida: armado con el ojo revolucionario que le permitía ver nuevas oportunidades en la historia pasada, y que por ello continuó toda su vida desarrollando la capacidad de soñar nuevos futuros. Teniendo siempre presente el entorno, sin prestar demasiada atención a lo que hacían los que tenía alrededor. Siempre fiel al hecho de estar en el camino. A pesar de que muchos despreciasen esa fidelidad como una absurda inconstancia.

La vida de Mario hubiese sido más fácil si hubiese emprendido el cambio de sentido que tantos han llevado a cabo: comenzar desde el nacionalismo, llegar a la crítica marxista del nacionalismo, y al pasar los años, con la decadencia del marxismo, volver a una especie de nacionalismo. Camino de ida y vuelta. A pesar de haber dado los agrios pasos de alejamiento en la juventud, doblegarse al final a la necesidad de volver al hogar.

No. No era el estilo de Mario. No se alejó en vano en su juventud del nacionalismo. Del nacionalismo, no del País Vasco, no de la historia vasca, no de la sociedad vasca. Todo lo contrario: puesto que para él alejarse del nacionalismo vasco fue una aproximación a la historia vasca tapada, acercarse a las historias de los hombres y mujeres ocultadas por intereses de poder, y a las acciones que llevaron a cabo. Para poder guardar y desarrollar todo aquello que el nacionalismo decía querer guardar, pero lo verdaderamente auténtico, Mario vio que tenía que seguir con la crítica al nacionalismo, y así siguió toda su vida. Descubriendo una y otra vez el profundo significado del paso dado en la juventud. Y sin sentir ningún arrepentimiento, pues fueron demasiados, creo que él así lo creía, y aun hoy lo son, los que sintiendo que el paso dado en la juventud fue un error, empujados por el arrepentimiento, dejaron en el camino de vuelta la juventud, los sueños de entonces, el camino emprendido, y volvieron con la identidad completamente deshecha. Y que, por supuesto, encuentran el culpable de todo lo que deshacen fuera de sí mismos.

Mario ha terminado su camino. Sus voluntades e ideas pueden seguir vivas. Lo que debemos saber es si la sociedad vasca emprenderá o no el camino. Si habrá alguien en la sociedad vasca, superando las tácticas políticas actuales, no apartándolas simplemente, para dar continuación al camino de Mario. Pero, para ello es necesario rememorar algo que Mario ya sabía: que la historia ni empieza ni acaba en un día; que la historia tiene muchos caminos; que la historia, sobre

Ez dakit, ordea, euskal gizartea Mario-ren bideari ekiteko moduan ote dagoen. Zenbaitek dio bideari ekingo liokeela, bainan abertzaletasuna kritikatu gabe. Beste zenbait, aldiz, bideari ekin beharraren aldeko da, bainan halako eta halako bide-lagunak ez zaizkio gustuko. Beste zenbaiten kasuan bideari berari zaio beldur, uste baitute dena dagoela betidanik, abertzaleena ez den moduan bada ere, finkaturik. Inor gutxi, beraz, Mario-rekin bidean jartzeko. Eta horrela gertatzen bada, ez da bakarrik Mario gizakiaren bidea betirako amaituta geldituko, baita bere ametsak, ilusioak eta ideiak ere etorkizunik gabe gelditukodira. Mario-ren bigarren eta behin-betiko heriotza.

Ez dakit etorkizunean historiak Mario-ri zer nolako tokia egingo dion. Gaur guneko politikan bizi dugun korapiloaren barrutik ikusita, ordea, iruditzen zait itsukeria izugarria litzatekeela Mario-ren adibidea, bere ibilbidea, bere idatziak, bere bizitzak erakusten diguna baztertuko bagenu. Itsumustuan dabilenak eskura izan dezakeen argi izpi txikiena eguzkiaren ilusiotan baztertzen duenaren antzeko ginateke orduan: itsu eta ero aldi berean. Eta horrela gabiltza handi-mandikerietan azken bolada luzean, itsu eta ero, bainan eguzkiaren jabe garelakoan.

Nik nire baitan Mario-ren oroimena zainduko dut: gaztetan argiaren bila irten zen norbaiten oroimena, eta bilatu beharrean bertan dagoela aurki dezakegun argirik beteena ikasi zuenaren oroimena. Iragana modu berri batean irakur daitekeela ikasi zuenaren, eta erakutsi zigunaren, oroimena, eta hori eginez etorkizun bide berriak irekitzen saiatu zenaren oroimena.

Besteentzat utziko ditut betikoan jarraitu nahi dutenak, betidanik bide zuzen eta zintzoan daudela uste dutenak. Besteentzat, baita ere, etxerako itzulera dela gizatiarron ahalezko bide bakarra uste dutenak. Besteentzat bidearen beldurrak jota itzulera amets bakar dutenak. Eta Mario-rekin gelditukonaiz: jada ahaztu bide dugun Mario-rekin, gure kalterako baztertu bide dugun Mario-rekin, uste baitut bere oroimena dela, beste zenbaitenarekin batera, etorkizun bidea erakutsi diezagukeen bakarretakoa.

**Joseba Arregi**
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburu ohia
UPV/EHU-ko irakasle




todo la de una sociedad, no se agota en una táctica maniatada a la actualidad. Pues ya había aprendido gracias a sus investigaciones históricas que lo que más se ata al ahora, al hoy, son los intereses de los que gobiernan, y no los intereses de la historia de la sociedad, y mucho menos aun los intereses del futuro de la sociedad.

Pero no sé si la sociedad vasca está en condiciones de emprender el camino de Mario. Algunos dicen que emprenderían el camino, pero sin criticar el nacionalismo. Otros, en cambio, afirman la necesidad de emprender el camino, pero no les gustan estos o aquellos compañeros de viaje. En otros casos se teme al camino como tal, en la creencia de que todo está fijado desde siempre, aunque no sea en la forma de los nacionalistas. Pocos por lo tanto para ponerse en camino con Mario. Y si así sucede no sólo será el final del camino del Mario hombre, sino que también sus sueños, ilusiones e ideas se quedarán sin futuro. La segunda y definitiva muerte de Mario.

Desconozco el lugar que la historia le deparará en el futuro. Pero visto desde el nudo de la política que vivimos actualmente, me parece que sería de una ceguera intolerable apartar su ejemplo, su trayectoria, sus escritos, aquello que nos enseña su vida. Nos pareceríamos a aquel que en la oscuridad aparta un tenue haz de luz a cambio de la ilusión del brillante sol: ciego y loco al mismo tiempo. Y así vamos en estos largos últimos tiempos, perdidos en grandilocuencias, ciegos y locos, pero creyéndonos dueños del sol.

Yo cuidaré el recuerdo de Mario en mi interior: el recuerdo del que en su juventud partió en busca de la luz, y el recuerdo de aquel que aprendió que en la búsqueda se hallaba la luz más satisfactoria. El recuerdo del que aprendió, y nos enseño, que el pasado se puede leer de una forma nueva, y el recuerdo del que haciendo esto intentó abrir nuevos caminos de futuro.

Dejaré para otros a los que quieran seguir en lo mismo, a los que crean que desde siempre han estado en el buen y recto camino. Para otros también, a los que crean que el único camino posible de las personas es el retorno al hogar. Para otros, a los aterrorizados por el camino que sólo sueñan con el regreso. Y me quedaré con Mario; con el Mario que ya debemos haber olvidado, con el Mario que parece que hayamos ya apartado, en nuestro detrimento, ya que creo que su recuerdo es, junto con el de algunos otros, de los pocos que nos pueden enseñar el camino del futuro..

**Joseba Arregi**
Ex-consejero de Cultura del Gobierno Vasco
Profesor de la UPV/EHU

# 02.

## La voz de Lete
## Leteren ahotsa

**Kepa Aulestia**



© Eider Astrain

## La voz de Lete

Un libro aguarda entre otros, apretado e inconfundible. La letra impresa en su lomo evoca los años setenta. Su tamaño lo distingue de los demás volúmenes. Sus colores –el negro, el rojo y el blanco– parecen de entonces y de ahora. Siempre ha estado ahí, como si las mudanzas de treinta años no hubiesen logrado arrebatarle su posición jerárquica. No es una actitud reverencial la que disuade a Luis de abrirlo después de tanto tiempo. Más bien teme que las páginas se hayan deshecho en su interior; o que la tinta negra muy negra de aquellos años haya emborronado su contenido; o que las palabras, cansadas de mantenerse en la misma postura, hubiesen decidido cambiarse de sitio componiendo enigmáticos versos. Pero lo que de verdad asusta a Luis es pensar que, aun continuando todo como salió de la imprenta, al abrir "Bigarren poema liburua" no consiga rememorar su primera lectura. Le aterra el olvido; pero sobre todo teme no reconocerse en sus diecisiete años. Teme percatarse de haber perdido el rastro de su vida.

El paso del tiempo nos induce a traicionar la verdad; a moldear los momentos vividos a conveniencia del presente; a recordar un pasado tamizado por los prejuicios y las vergüenzas que acumulamos con los años. Luis no recuerda su primera lectura de Xabier Lete. Conserva solo una cierta noción de lo que pudo ser para un joven ignorante y ansioso por saberlo todo. La ruptura con la fe infundida mediante la tradición: "Sinesten dut / egun batetan hilen naizela / hutsean eroria / ezerezean amildua / hauts bihurtuko naizela". O una forma renovada de expresión de esa misma tradición: "Sinesten dut / hartuko nauen lur hortatik / landare berriak / sortuko direla, / landaretatik zuhaitzak / zuhaitzetatik loreak / loreetatik fruituak...". Una cadencia que por un instante contribuyó a esculpir sus sentimientos al salir de la adolescencia: "Sinesten dut / kolore zoragarrizko larrosen / kapulotasun legunean / haize euritsuaren freskotasunean / itsasoaren aldakuntza / gazi mugikorretan...". Un sonido nuevo para la vieja lengua heredada de sus abuelos: "... eta izatetik izatera / atsedenik gabeko mugimenduak / garamatzala". O la agradecida aceptación de un mundo que surgía con una magia hasta entonces desconocida en esa lengua: "... eta jakintsuagotzen gaituen / zalantza orokorraren baitan".



## Leteren ahotsa

Besteen artean, estu eta nahastezin, zain dago liburu bat. Azalean inprimaturiko letrek hirurogeita hamargarren hamarkada gogorarazten dute. Bere tamainak beste aleetatik bereizten du. Bere koloreek – beltza, gorria eta zuria – ordungoak eta oraingoak ematen dute. Beti egon da hor, hogeita hamar urtetako etxe-aldatzeek bere posizio hierarkiakoa kentzea lortu izan ez balute bezala. Ez da jarrera erreberentzial bat Luisi, hainbeste denboraren ostean, liburua zabaltzea eragozten diona. Gehiago da barnean orrialdeak desegin izanaren beldur dela; edo garai haietako tinta beltz, oso beltzak edukinak ilundu izana; edo hitzek, beti postura bera mantentzeaz asperturik, elkarrekin lekuak trukatuz bertso enigmatiko berriak sortu izana. Baina Luis benetan izutzen duena zera pentsatzea da, denak inprentatik irtetean bezalaxe jarraitu arren, "Bigarren poema liburua" irekitzean lehen irakurketa ez gogoratu ahal izatea. Ahazturak izuikara eragiten dio; baina batez ere bere hamazazpi urteetan ez errekonozitzeak ematen dio beldur. Bere bizitzaren aztarna galdu izanaz konturatzeak ematen dio beldur.

Denboraren joanak egia saltzera eramaten gaitu; bizitako mementuak orainaren egokierara moldatzera; iragana urteen poderioz pilatzen diren aurreiritzi eta lotsen galbahetik pasata gogoratzera. Luisek ez du bere Xabier Leteren lehen irakurketa gogoratzen. Dena jakin nahi zuen gazte ignorante batentzat esan nahi izan zezakeenaren zantzu bat besterik ez du gordetzen. Tradizioak sorrarazitako sinesmenarekin haustura: "Sinesten dut / egun batetan hilen naizela / hutsean eroria / ezerezean amildua / hauts bihurtuko naizela". Edo tradizio beraren espresio berritu bat: "Sinesten dut / hartuko nauen lur hortatik / landare berriak / sortuko direla, / landaretatik zuhaitzak / zuhaitzetatik loreak / loreetatik fruituak...". Instante batez, nerabezarotik irtetean, bere sentimenduei forma ematen lagundu zuen kadentzia: "Sinesten dut / kolore zoragarrizko larrosen / kapulotasun legunean / haize euritsuaren freskotasunean / itsasoaren aldakuntza / gazi mugikorretan...". Hots berri bat aiton amonengandik jasotako hizkuntza zaharrarentzat: "...eta izatetik izatera / atsedenik gabeko mugimenduak / garamatzala". Edo hizkuntza hartan ordura arte ezezaguna zen magia batekin agertzen zen munduaren onespen eskertua: "...eta jakintsuagotzen gaituen / zalantza orokorraren baitan".

Cada tarde, cuando se sienta a corregir exámenes o a preparar las clases del día siguiente, Luis mira de reojo las dos baldas de la derecha en las que mantiene a la vista algunos libros de su juventud, como si se tratara de los restos de un naufragio. "Arratsaldeko azken orduetan / bizitzearen monotonia / hauts fin bat bezela / gauzen gainean / pausatzen zen". Cada tarde, cuando toma un respiro en medio de su ritual de profesor a horas, su mirada recorre los tonos ya descoloridos de libros que jalonaron como apretados escalones buena parte de su primera juventud. Y de entre ellos destaca, mayor que los demás, diferente y atrevido, el poemario de Lete. "Dena ohartzean zetzan: / bidearen azkenean / parke lanbrotsu hura". Pero Luis continúa evitando cogerlo entre sus manos, abrirlo y ojearlo. Teme que Lete no le diga ya nada. O teme recordar aquello que le decía hace treinta años y sonrojarse pensando en la avidez con la que buscaba ideas y frases que saciaran su apetito a la vez primario y oportunista.

Es una vergüenza semejante a la que siente cuando, en los esporádicos encuentros de sesentayochistas tardíos, oye a los demás evocar con orgullo la autenticidad de aquellos años de ingenua efervescencia. Una nostalgia fingida –piensa él– que trata de enaltecer el ánimo de quienes siempre supieron que la revolución era una tarea imposible pero que conveniente en una determinada etapa de la vida. "Gu / ezaren seme / zalantza orokorraren zaldun lurreratu / odol eta lokatzezko denbora hauetan / nostaljiaren sabelean bilduta aurkitzen garenok".

El propio Luis evita recordar cuán exigente se volvía al recabar de los demás un mayor compromiso. Él, que inventaba cualquier excusa para evadirse de clase a cuenta de sus obligaciones activistas que también inventaba, siente ahora vergüenza cuando se topa con alguien de aquellos años y le oye recordar su peripecia común como si sus hazañas hubiesen sido propias de héroes o mártires. Por momentos Luis siente despecho por aquellos años de los que no puede renegar ni en público ni en la intimidad de sus pensamientos, pero que aborrece como un tiempo perdido engañosa y miserablemente.

Con el tiempo Luis fue percatándose de que ni la efervescencia del momento era tal ni la actitud de los activistas que como él emprendieron la búsqueda de otra verdad resultaba tan ingenua y desprendida. Más bien resultaba egocéntrica e interesada. Su heterodoxia no era más que otra manifestación de sectarismo. Quizá sea también por eso que no quiere abrir "Bigarren poema liburua". Porque de nuevo le obligaría a reconocer lo que en tiempos le llegó a atormentar: que leía todo con la actitud mezquina e inquisidora de quien convierte cada frase o cada verso en motivo para enjuiciar moralmente a su autor.

Luis se emocionó con Lete y luego lo despreció. De su mano descubrió rincones nuevos; pero más tarde consideró que en realidad las revelaciones del poeta disuadían de alcanzar un mundo en verdad distinto. Al principio no se sen-



Arratsaldero, azterketak zuzentzera, edo hurrengo eguneko klaseak prestatzera esertzen denean, Luisek soslaiez begiratzen die eskuineko bi baldei, non bistan gordetzen dituen gaztaroko hainbat liburu, naufragio baten hondarrak bailiran. "Arratsaldeko azken orduetan / bizitzaren monotonia / hauts fin bat bezala / gauzen gainean / pausatzen zen". Arratsaldero, ordukako irakasle denaren errituaren erdian atseden hartzen duenean, begirada bere lehen gaztaroko zati handi bat eskilara bateko maila estuak bezala bete zuten liburuen tonu deskolorituetatik paseatzen da. Eta beraien artean nabarmentzen da, handiago, ausartago, Leteren poemarioa. "Dena ohartzean zetzan: / bidearen azkenean / parke lanbrotsu hura". Baina Luisek esku artean hartu, ireki eta begirada bat botatzea saihesten jarraitzen du. Letek jada ezer esango ez dion beldur da. Edo duela hogeita hamar urte esaten ziona gogoratzeak izutzen du, eta, aldi berean primario eta oportunista zen apetitua asetzeko irrikaz bilatzen zituen ideia eta esaldietan pentsatzeak gorritu

Noizbehinka, beste hirurogeita zortzitar berantiarrekin topo egiten duenean, urte haietako eferbeszentzia sineskorraren egiazkotasuna harro gogoratzen entzuten dituenean sentitzen duen lotsarekin konparagarria da orain sentitzen duena. Bizitzako etapa jakin batean matxinada betebehar ezinezkoa izango zela jakin arren, onuragarria izango zela pentsatu zutenen animua goratzeko antzezturiko – bere ustetan – nostalgia. "Gu / ezaren seme / zalantza orokorraren zaldun lurreratu / odol eta lokatzezko denbora hauetan / nostaljiaren sabelean bilduta aurkitzen garenok".

Luis berak ekiditen du besteengandik konpromezu handiagoa eskatzean zein exigente bihurtzen zen gogoratzea. Berak, zeinak edozein aitzakia asmatzen baitzuen klasetik ospa egin eta asmaturiko betebehar aktibistetan aritzeko, lotsa sentitzen du urte haietako kideak topatu, eta euren pasadizo komunak heroi edo martirien hainako balentriak bailiren gogoratzen entzuten dituenean. Badira uneak zeinetan Luisek urte haiekiko hisia sentitzen duen, ez publikoki ez bere pentsamenduen intimitatean uko egin ez arren, miserableki eta engainuan galdutako denbora gisa mespretxatzen baitituen.

Denborarekin ohartu zen Luis mementuko eferbeszentzia ez zela hainbesterakoa izan, eta berak bezala beste egia baten bilaketari ekin zioten aktibisten jarrera ez zela hain interes gabea eta xaloa. Nahiko egozentriko eta interesatua zen, egia esan. Beren heterodoxia sektarismoaren beste adierazpen bat baino ez zen. Baliteke hau "bigarren poema liburua" ireki nahi ez izateko beste arrazoi bat izatea. Horrek, berriro ere, garai batean bere burua torturatzeraino eraman zuena gogoratzera behartuko bailuke: guztia, esaldi edo bertso bakoitza idazlea moralki epaitzeko aukeran bihurtzen duenaren jarrera doilor eta inkisidoreaz irakurtzen zuela.

Luis Leterekin emozionatu egin zen, ondoren arbuiatzeko. Bere eskutik

tía capaz de leer a Lete; le resultaba sublime. Pero tan solo unos meses después decidió que el poeta no estaba a la altura de sus exigencias. "Gure bideak ez darama / eskainitako hirira / bide soila baizik ez da: / gauzen izentatze etengabe bat".

Debía haber una tierra prometida que diera sentido al camino. Era tan evasiva la actitud del poeta. ¿Por qué se empeñaba en eludir su compromiso? ¿Por qué no se atrevía a mostrar el camino? ¿Acaso podía sentirse capaz de escribir un solo verso sin antes tener clara su meta? Al poeta parecía bastarle una enumeración infinita de las cosas para cumplir con su papel de relator. Pero él no necesitaba que alguien le narrase lo que sucedía. Exigía que alguien tan atrevido como para escribir se arriesgara también a adelantarle aquello que iba a suceder después.

Hoy Luis no quiere recordar el esfuerzo que tuvo que hacer para disimular su decepción cuando descubrió que el poeta prescindía de adoctrinamientos, desdeñaba convencer a sus lectores o convertirlos en seguidores de un apostolado inexistente. Le resultaba tan costoso descifrar los mensajes; le resultaba tan incomprensible que el poeta ocultara sus deseos en un juego de palabras interminable. Por eso, entre la emoción primera y el desprecio posterior, comenzó a seleccionar aquello que encajase en sus planes y no le quedó nada.

"Gu sortu ginen enbor beretik / sortuko dira besteak". Al principio aquél parecía un destino ineludible pero esperanzado. Había una continuidad entre su procedencia y su descendencia. Le reconfortaba la idea, le daba seguridad en la edad de la incertidumbre. Le daba confianza sentirse parte de una estirpe que engendraría nuevas generaciones. Esa manera de exorcizar el empequeñecimiento, la soledad, su retraimiento de los diecisiete. "Enbor" se convirtió para él en una palabra recurrente mientras comenzaba su alfabetización en euskera. Era su metáfora predilecta. En realidad, su única metáfora que tomó prestada de Lete para referirse a todo lo que tuviera que ver con los orígenes, con el arraigo o con el futuro. Con la vida misma. Durante ese tiempo nunca tuvo en cuenta que también "enbor" se refiere a la pieza talada en medio de un bosque vivo.

Hoy Luis no siente haber surgido exactamente del mismo tronco del que surgieron sus mayores. Y mucho menos piensa en él mismo como tronco del que pudieran nutrirse sus descendientes. En las contadas ocasiones en las que estuvo tentado de ser padre prefirió evitarlo. En las contadas ocasiones en las que un alumno se atrevió a acercársele en busca de consejo se comportó con el desdén de quien huye del paternalismo como de sí mismo. Enbor beretik? De ningún modo. El paisaje de Luis está compuesto por seres solitarios que pugnan únicamente por su propia independencia.

"Egun batez / errautsek / tristura hotz hau / guztiz estaliko dute". A Luis ni siquiera le queda el rastro de melancolía que tantos de su generación han



txoko berriak ezagutu zituen; baina aurrerago, poetaren errebelazioek, benetan, mundu egiazki ezberdin baten erdiestea burutik kentzen zutena kontsideratu zuen. Hasieran ez zen Lete irakurtzeko gai sentitzen; ezin hobea iruditzen zitzaion. Baina hilabete batzuk soilik beranduago, poeta bere exijentzien mailan ez zegoela erabaki zuen. "Gure bideak ez darama / eskainitako hirira / bide soila baizik ez da: / gauzen izentatze etengabe bat".

Bideari zentzurik emango zion hitzemandako lurrak existitu beharra zuen. Hain zen iheskorra poetaren jarrera. Zergatik tematzen zen bere konpromezuari uko egiten? Zergatik ez zen ausartzen bidea erakustera? Akaso bertso bakar bat idazteko gai sentitzen al zen bere helburua argi izan gabe? Bazirudien poetari nahikoa zitzaiola, bere kontatzaile paperarekin betetzeko, gauzen enumerazio infinitua. Baina berak ez zuen behar gertatzen zena inork konta ziezaion. Idazteko bezain ausarta zen norbaiti ondoren gertatuko zena aurresatearen ausardia exijitzen zion.

Gaur Luisek ez du gogoratu nahi nolako esfortzua kosta zitzaion bere dezepzioa disimulatzea; konturatu baitzen poetak doktrinamenduei uko egiten ziela, irakurleak konbentzitzeari eta existitzen ez zen apostulatu baten jarraitzaile bihurtzeari muzin egiten ziola. Hain zitzaion nekeza mezuak deszifratzea; hain ulertezina poetak bere desioak hitz-joko amaigabe batean ezkutatzea. Horregatik, hasierako emozio eta ondoko mespretxuaren artean, bere planetarako balio ziona aukeratzen hasi, eta ezer gabe geratu zen.

de verdad por su contenido. En efecto, si lo que Oteiza pretendía era que lo de ser o no ser vasco era más una cuestión de voluntad o intención (estilo, en su léxico) que de herencia genética, lengua u opiniones políticas, entonces dejaba claramente en entredicho la premisa nacionalista de que la posesión de identidad y la pertenencia a un pueblo son condiciones naturales, atributos obligados a los que no podemos sustraernos y que debemos aceptar con entusiasmo. Todo lo contrario: para Oteiza la identidad vasca debía entenderse como un estilo estético concreto, lleno de consecuencias políticas y morales, pero nunca como algo derivado de una lengua, una etnia o un carnet político. Esto puede iluminar en parte las pésimas relaciones de Oteiza con el PNV, a cuenta de su política cultural –hasta que al final de su vida la senectud le hizo juguete de esa burocracia cultural que tanto detestó–, o la declaración de Mario Onaindia de que el Quosque tandem era el libro que más veces había releído en su vida, quizás un dato que permite entender mejor su evolución desde el corazón del nacionalismo radical hacia la crítica radical de éste, de ETA a Basta Ya.

Es posible que Oteiza siempre fuera consciente de la brutal contradicción que intentaba cabalgar, contradicción que no pocas veces le derribó tras elevarlo hasta alturas prodigiosas, y contradicción esencial que amó y maldijo a lo largo de su dilatada vida. La herencia cultural vasca, tan exigua o semejante a la de nuestros vecinos si dejamos de lado el euskera, le importó siempre muy poco. Se encontraba cómodo en la fabulación prehistórica porque en realidad el paleolítico es un periodo tan remoto y sugerente que permite decir cualquier cosa, y reinterpretó a su modo el bertsolarismo genuino –el tabernario de Txirrita, Xenpelar y compañía– precisamente por lo ajeno que resultaba a la cultura urbana y escrita tradicional. Las teorías prehistóricas del padre Barandiarán y sus epígonos le sirvieron como estribos para auparse a una historia poética y contrafáctica casi totalmente inventada –de modo que llevó la etnografía vasca hasta la conclusión lógica de la pura invención–, y los bertsos de los rimadores baserritarras le servían para fabular un modelo de "hombre vasco" auténtico que él era el primero en reconocer puramente ilusorio, en el mejor de los casos extinto y como mucho sepultado en los más profundos estratos del inconsciente colectivo e individual.

La cultura vasca existente o tradicional le interesaba mucho menos que la cultura vasca inventada, en la mejor tradición tardoromántica de los Chaho o Araquistáin. Real era lo que no había sucedido pero podría haber sucedido –un eco aristotélico–, o debería haber sucedido por imperativos retroactivos del presente. El acerbo folklórico vasco –lo visible– era tan inapropiado para fundamentar las especulaciones oteicianas que cuando necesitaba mitos y fábulas ad hoc recurría, y cómo no, al inmenso tesoro de los mitos clásicos. Uno de sus favoritos era el mito menor de Acteón. Porque él se consideraba a sí mismo un Acteón azarosamente nacido en Orio.



ak gainera. Guztiz kontrakoa: Oteizarentzat euskal identitatea estilo estetiko zehatz gisara ulertu beharra zegoen, ondorio moral eta politikoz gainezka, baina inoiz ez hizkuntza, etnia edo karnet politiko bati lotua. Guzti honek argi dezake hein batean Oteizak, politika kulturala medio, EAJrekin izan zuen harreman liskartsua –haren bizitzaren azken boladan, zahartzaroak horrenbeste gaitzetsi izan zuen burokrazia kulturalaren panpina egin zuen arte–, edota argi dezake Mario Onaindiak behin esandakoa, hots, Quosque tandema zela bizitzan gehien berrirakurri zuen liburua; datu esanguratsua azken hau, nazionalismo erradikalenetik beronen kritika erradikalera eraman zuen bidea hobekiago ulertzera eramango gaituena, ETAtik Aski Da-ra.

Posible da, Oteiza kontradikzio itzel honen jakitun beti izatea, gidatu nahi izan zuen kontradikzioa, maiz lurreratua izan zen altuera miragarrietara jasoa izan ondoren, eta kontradikzio funtsezkoa, finean, haren bizitza luze guztian zehar maitatu eta madarikatua. Euskal herentzia kulturalak, horren urria eta auzokoenaren antzekoa euskaragatik ez balitz, ezer gutxi axola izan zion. Fabulazio prehistorikoan eroso sentitzen zen, egia esatera, hain da urruna eta iradokizunez betea paleolitikoa ezen edozer gauza esan baitaitekeen, eta halaber, bertsolaritza benetakoa –Txirrita, Xenpelar eta enparauen taberna-zulokoa– bere erara berrinterpretatu zuen, hain zuzen, kultura urbano eta idatzi tradizionalarekiko erabat arrotza izateagatik. Aita Barandiaran eta epigonoen teoria prehistorikoak, estribo gisara erabili zituen historia poetiko eta kontrafaktiko kasik osoki asmatu batera igo ahal izateko –euskal etnografia asmakizun hutsaren ondorio logikora eramanaz– eta bertsolari baserritarren neurtitzak "euskal gizon" jator modelo bat fabulatzeko baliatu zituen, Oteiza bera izan arren osoro ilusiozko zena aitortzen lehena, kasurik onenean iraungia eta asko jota inkontziente kolektibo eta indibidualaren estraturik sakonenean lurperatua.

Chao eta Arakistainen tradizio erromantiko-berantiarrari jarraiki, askozaz ere gutxiago interesatzen zitzaion existitzen duen euskal kultura (tradizionala), euskal kultura asmatua baino. Benetakoa gertatu ez zena baina gerta zitekeena da –Aristoteleren oihartzuna–, edota, orainaren inperatibo atzeraeraginezko bategatik gertatu behar izan zuena. Euskal ondare folklorikoa –ikus daitekeena– Oteizaren espekulazioak oinarritzeko hain zen desegokia ezen, mito eta fabulak ad hoc behar zituenean, mito klasikoen altxor mugagabera jotzen baitzuen. Faboritoenen artean Akteonen mito apala zuen. Oteiza berak halabeharrez Orion jaiotako Akteon baten gisara ikusten zuen bere burua.

**2. Akteon**

Greziako mitoen artean ehiztari bat zen Akteon, zorigaitzeko egun batean bere zakurrek basoan irentsi zutena. Horrenbeste maluraren arrazoiak lausoak dira oso. Antzinaroko bertsio zabalduenaren arabera, Akteonek Artemis jainkosa iturburu kristalino batean bainua hartzen ikusi omen zuen, zelatan zelarik edo

## 2. Acteón

En los mitos griegos, Acteón era un cazador que un mal día fue devorado en el bosque por sus propios perros. Las razones de tanta desgracia son más confusas. Según una de las versiones preferidas en la antigüedad, Acteón habría espiado o sorprendido –que tanto da– a la diosa Ártemis mientras de bañaba en un manantial cristalino. Furiosa, la vengativa deidad convirtió a Acteón en un ciervo contra el que se arrojaron sus propios perros hasta destrozarlo. El cazador cazado: una de las secretas obsesiones de Oteiza, que a veces aludió a la escultura como la exploración de espacios emprendida por un cazador espiritual que persigue la nada para atraparla. Eso no es todo. El mito de Acteón arroja otros indicios para comprender a Oteiza, que le dio varias vueltas en obras poéticas como "Yo soy Acteón", de 1961, y en diversos proyectos sintomáticamente inacabados, como la película frustrada que debía haber realizado en colaboración con un director catalán con quien acabó peleado.

Según otra versión del mito, tras devorar a su amo metamorfoseado en ciervo, los perros vagaron desolados por el bosque, aullando su dolor por la pérdida de Acteón. Así dieron con el centauro Quirón, maestro de héroes –entre ellos Aquiles–, que para consolarlos fabricó una réplica escultórica del cazador despezado por los canes. La réplica fabricada por Quirón –con quien también se compara Oteiza en algún otro poema– para consolar a los animales parece un compendio alegórico de la función del arte según Oteiza: un placebo o ersatz espiritual que debe sustituir a la verdadera espiritualidad y promover su emersión del fondo del alma, pero también una réplica o huella de una perdida irreparable, en este caso la vida de Acteón. En la concepción oteiziana, el círculo se cerrará cuando la propia escultura, el arte en general, desaparezcan a su vez por que ya no resulten necesarios al haber cesado su función de sustitución, culminando en esa muerte mesiánica –arte y artista se inmolan en nuestro beneficio– su acción redentora.

Oteiza intentó ser un Quirón o maestro-centauro para muchos de quienes le conocimos y tratamos en algún momento de su larga vida (1908 - 2003); algunas esculturas y varios dibujos de los años cincuenta tienen como tema a un centauro que escruta el mundo a través de una perforación, semejante a las que en sus recuerdos decía haber horadado de niño en las rocas de Orio y a las que, finalmente, protagonizarán su serie de esculturas vacías o huecas del "Propósito Experimental", la gran empresa que desarrolla entre 1951 y 1959. Intolerante y cordial, resentido y cándido, generosamente pródigo y mezquinamente egocéntrico a la vez, Oteiza no era un padre adoptivo amable para quienes se acercaban a él buscando guía y consejo, sino más bien un patriarca tirano de aires bíblicos. Seguramente por eso sus hijos adoptivos le duraban tan poco; a alguno llega a perseguirlo con insultos en los pies de foto del libro biográfico de Pelay Orozco.




ustekabean harrapatuta (zer axola bat edo beste). Haserre, jainkosa mendekatiak orein bihurtu omen zuen Akteon, bere zakurrak gainera bota zitzaizkiolarik birrin zezaten. Ehiztari ehizatua: obsesio sekretuetako bat Oteizarengan, inoiz eskultura espazioen esplorazio izendatu zuenarengan, hutsunearen atrapatzera oldartu den ehiztari espiritual batek ekina. Hori ez da guztia. Akteonen mitoak Oteiza ulertu ahal izateko beste hainbat zantzu eskuratzen dizkigu. Haren jardun poetikoan landu izan zuen, 1961an "Yo soy Acteón" kasu, eta sintomatikoki amaitzeke laga zituen zenbait proiektutan, zuzendari kataluniar batekin (haserre bukatu zuten) kolaborazioan egin behar zuen pelikula frustratua, adibidez.

Mitoaren beste bertsio baten arabera, orein metaformoseatu zen nagusia irentsi ostean, atsekabez alderrai joan ziren zakurrak basoan zehar, Akteonen galeraren oinazez uluka. Kiron Zentauroarekin, heroien maisua –Akiles, haien artean– topo egin zuten hala, haien kontsolamendurako ehiztari zakurrek birrindutakoaren replika eskultorikoa egin zuelarik. Kironek –zeinarekin ere konpara tzen baiten beste poemaren batean– animalien kontsolatzeko egin replika eskultorikoak, Oteizaren aburuzko artearen funtzio laburpen alegorikoa dirudi: benetako espiritualitatea ordezkatu behar eta arimaren sakonetik azaleratzea eragingo duen plazebo edo ersatz espirituala, baina halaber, konpondu ezinezko galera baten, Kironen bizitza kasu honetan, replika edo zantzua. Oteizaren kontzepzioan, eskultura, artea bere osotasunean, berriz desagertzen direnean itxiko da zirkulua, ordezkapen funtzioa amaitu eta jada beharrezko ez izateagatik, heriotza mesianiko honetan –artea eta artista gure hobe beharrez immolatzen dira– gorenera iritsiz haren ekintza askatzailea.

Oteiza Kiron edo maisu-zentauro izaten saiatu zen haren bizitza luzearen (1908-2003) uneren batean ezagutu eta harekin harremana izan genuen askorentzat; berrogeitahamar. hamarkadako hainbat eskultura eta marrazkik zentauroaren gaia ukitzen dute, perforazio baten zehar mundua ikuskatzen duen zentauroa, haren oroitzapenetan artean umea zelarik Orioko harkaitzetan egiten omen zuenaren, eta azkenik, "Propósito Experimental" 1951 eta 1959 bitartean burutu zuen eginkizun handiaren protagonista ziren eskultura huts seriearen antzera. Intolerante eta atsegina, erresumin eta xumea, eskuzabalki emankorra eta zekenki egozentrikoa aldi berean, ez zen Oteiza aita adoptibo atsegin bat gomendio eta gidari bila hurbiltzen zenarentzat, aire biblikoko patriarka tiranoa baizik. Horrexegatik, ziurrenik, irauten zioten seme adoptiboek horren gutxi; haietako batzuek irainka ere jazartzen ditu Pelay Orozcoren liburu biografikoaren argazki oinetan. Froga gainditu zuten hainbat ezagutu ditut eta guztiek prozesu berbera deskribatzen dute: deskubrimentuaren zirrarak, geldo edo bizkor, halabeharrezko haustura atzeraezinari ematen zion bide, sarri askotan motiborik irrigarrienak medio. Saturno berri baten legez, aita beldurgarriak bere semeak irensten, izan

He conocido a varios que pasaron la prueba y prácticamente en todos los casos relataban el mismo proceso: la emoción del descubrimiento daba paso inexorable, lento o raudo, a la ruptura irreversible, a menudo justificada con los motivos más ridículos. Como un nuevo Saturno, el padre terrible parecía renovar sus energías devorando a sus propios hijos, fueran tontos o brillantes.

La verdad es que la mayoría de los que nos acercábamos a su persona esperábamos una iluminación, la indicación de un camino, una revolución en la propia existencia, rescatada del gris de la vida corriente para arrojarse al mundo tempestuoso y resplandeciente de los genios incomprendidos. Oteiza recibía con generosidad a casi todos. Buscaba con ansiedad evidente un hijo adoptivo digno de él que, además, asumiera la titánica tarea de consumar la obra ambicionada por el padre, cuya gigantesca dimensión escapaba al término de una vida corriente. Cuando se le preguntaba sobre si el abandono de la escultura que declaró a partir de 1960 significaba un decreto de extinción de ese arte, daba una respuesta desconcertante: "he terminado con la escultura, pero tras de mí dejo trabajo para cientos de nuevos escultores". Ni él mismo sabía si esa frase tenía sentido, pero la aporía parece el índice que señala un deseo anhelado e inconfesable: el de convertirse en padre de una nueva generación de artistas y de hombres nuevos (sobre las mujeres tenía un concepto de superioridad absolutamente tradicional).

Naturalmente, unas relaciones de dominio tan apabullantes no podían acabar nunca bien, siquiera porque los hijos adoptivos seguían creciendo por su cuenta. Cuando se daba el raro caso de que por fin encontraba su alter ego juvenil deseado –inteligente, culto, esforzado, infatigable, visionario, etcétera–, el propio Oteiza terminaba forzando la ruptura con el paciente discípulo. No soportaba la idea, parece evidente, de verse relegado y superado por un discípulo verdaderamente genial, lo que habría equivalido a su muerte en vida. Es sintomático que a los pocos artistas jóvenes de calidad a los que concedió elogios, como Txomin Badiola, los tratara de "buenos plagiarios". Había por tanto un miedo inconfesado a ser superado en vida, disimulado por una mezcla de adulación y agresividad contra los jóvenes. Así como la historia vasca ideal era aquella historia que nunca tuvo lugar, el discípulo perfecto de Oteiza era el discípulo imposible. Ciertamente, Oteiza siempre conservó en torno suyo a un variable séquito o corte de amigos, colaboradores y ayudantes, pero en conjunto se parecía más una claque permanente que celebrara sus ocurrencias y siguiera sus cambios de humor que a otra cosa. La tendencia a rodearse de personas cuya mediocridad garantizara por contraste su propio brillo aumentó con el paso de los años.

Mirando aquellos años, me parece que aprendí mucho de Oteiza, pero no aquello que él llamaba "aprendizaje", sino otras cosas más valiosas. Como la inagotable y pródiga riqueza de los grandes sujetos y su caleidoscópica contextura,




inozo hala bikainak, jasotzen bide zuen kemen eraberritua.

Egia esatera, inguratzen gintzaizkionen gehienok bide baten seinalearen, iluminazio baten, esperoan egiten genuen, bizitza arruntaren itzaletik erreskatatutako existentzia propioaren iraultza, jeinu ez-ulertuen mundu asaldatu eta distiratsura jauzi egitearen gutiziaz. Oteizak eskuzabaltasunez hartzen zituen ia guztiak. Ageriko kezkarekin bilatzen zuen seme adoptibo bat, maila emateaz gainera aitak irrikatutako obra titanikoa beregain hartuko zuena, zeinaren dimentsio tantaiak bizitza arrunt baten mugak gainditzen baitzituen. 1960an eskultura alde batera utzi izanak arte honen iraungitze dekretua suposatzen ote zuen galdetzen zitzaionean, erantzun harrigarri xamarra luzatzen zuen: "he terminado con la escultura, pero tras de mí dejo trabajo para cientos de nuevos escultores". Hark ere ez zuen jakingo esaldiak esanahirik zuenentz, baina aporiak desio ezkutu eta grinaz bizitako bat seinalatzen duen hatza dirudi: artista eta gizon berri generazio baten aita bihurtzearena (emakumeekiko, nagusigotasun kontzeptu erabat tradizionala zuen).

Noski, nagusitasun hain itogarriko erlazioak ezinezko zen noizbait ongi amaitzea, seme adoptiboek beren bide propioari zerraizkielako bakarrik balitz ere. Desiratutako alter ego gaztea aurkitzearen gertakari ezohiko eta arraroa azkenik gertatzen zen kasuetan ere –inteligentea, jantzia, saiatua, nekaezina, bisionarioa, etab.– Oteiza bera izaten zen dizipulu pazientziaz betearekin haustura eragiten zuena. Agerikoa dirudienez, ezin zuen bere burua dizipulu benetan jenial batek alboratua eta gainditua ikustearen ideia jasan, bizitzan heriotza suposatuko baitzuen honek. Sintomatikoa da, laudorioz hartu zituen artista gazte urriak, Txomin Badiola esaterako, "plagiario on" gisara tratatzea. Hortaz, bazen bizitzan gainditua izatearen beldur aitorrezin bat, gazteekiko lausengu eta agresibitateaz disimulatua. Euskal historia ideala sekula gertatu ez zena zen bezala, Oteizaren dizipulu perfektua dizipulu inposiblea zen. Esan beharrik ez dago, Oteizak beti mantendu izan zuela inguruan lagun, kolaboratzaile eta laguntzaile segizio bat, baina ezer bainoago, haren okurrentziak goraipatu eta umore aldaketei jarraitzen zien klake iraunkorra ematen zuen. Urteekin larritzen joan zen pertsona mediokreekin biltzearen joera, kontrasteak bere bikaintasuna berma zezan.

Urte haietan begirada pausatzen dudanean, Oteizarengandik asko ikasi nuelakoan nago, baina ez hark "aprendizaje" zeritzon hartatik, balio handiagoko hainbat gauza baizik. Esaterako, gizaki handien aberastasun amaigabe eta oparoa, eta haien izaera kaleidoskopikoa, edota frakasoari beldurrak sorkuntza bikainen hazi bezala duen ezusteko indarra.

### 3. Burdinazko kutxa

Hamalau urte inguru nituenean izan nuen Jorge Oteizaren berri. Haren obra zela medio, noski. Artea biziki nuen gustuko eta guzti harekin zerikusirik zuen edo-

o como la inesperada fuerza del miedo al fracaso como semilla de grandes concepciones.

**3. La caja de hierro**

Supe de Jorge Oteiza cuando andaba por los catorce años. Fue, naturalmente, a través de su obra. El arte me entusiasmaba, y coleccionaba cualquier publicación que tuviera algo que ver con todo eso. Me parece que Oteiza apareció en uno de aquellos calendarios de la Caja de Ahorros de turno. Aquel, en concreto, acompañaba los meses con fotografías de esculturas contemporáneas de artistas vascos: creo que eran Chillida, Mendiburu, Basterretxea, Ugarte y, por supuesto, Oteiza. Casi la plana mayor de la llamada "Escuela Vasca de Escultura", concepto puesto en circulación, precisamente, por el propio Oteiza. Me atraparon aquellas cajas de hierro y las construcciones de madera o piedra, tan diferentes entre sí pero atravesadas por un decidido aunque problemático "aire de familia". Tanto, que pocos años después uno de los primeros libros serios que recuerdo haber comprado fue el Quosque Tandem de Oteiza, su principal obra teórica. En concreto, adquirí la segunda edición, publicada en Txertoa en 1975, con una cubierta naranja brillante –butano– que destacaba sobre todos los demás volúmenes ofrecidos en el expositor de una pequeña librería ya desaparecida de la plaza Guipúzcoa. Mi primera visión directa de esculturas de Oteiza tuvo lugar, con toda seguridad, en el apostolado de la fachada de la iglesia del santuario de Aránzazu, donde los jóvenes de la época acostumbrábamos a subir para pasar unos días, consagrados a sueños de conspiración política y a un deleite en la naturaleza impregnado de un nacionalismo de la tierra tan pedestre como exaltado. Pero creo recordar haber visto alguna pieza oteiciana bastante antes, en una exposición rompedora de esculturas –muchos visitantes salían indignados– celebrada en el jardín de una villa de Fuenterrabía (la actual Hondarribia: entonces la llamábamos así todo el mundo, y no veo razones para dejar de hacerlo), donde fui con mis padres algún domingo veraniego algunos años antes.

En mi caso no fue la teoría la que despertó mi interés por el arte moderno, y más en concreto por la obra de Oteiza, sino una experiencia mucho más directa, inocente y emotiva, que puede resumirse como el descubrimiento inesperado de algo tan distante como extrañamente cercano. Debía tratarse de eso que los estetas acostumbramos a llamar una "experiencia estética". La cosa consiste en percibir en una obra de arte, o en un objeto cualquiera –desde un paisaje abrumador hasta una vieja cazuela– sensaciones, emociones, conceptos o percepciones que desbordan con mucho la pura presencia material de la cosa y parecen, de algún modo, superpuesta o unida a ella pero a la vez libres e independientes. Pues bien, algo así me encontré en aquellos objetos indudablemente extraños, pero innegablemente atractivos, presentados como "esculturas de la vanguardia vasca".




nolako argitalpenak kolekzionatzen nituen. Oteiza Aurrezki Kutxaren bateko kalendario batean agertzen zela uste dut. Hark, zehazki, hilabeteak euskal artista garaikideen eskulturekin batera agertzen zituen: oker ez banago, Chillida, Mendiburu, Basterretxea, Ugarte eta nola ez, Oteiza. "Escuela Vasca de Escultura" deitua izan zenaren kasik lan talde nagusia, Oteizak berak zirkulazioan jarri zuen kontzeptua hura. Atrapatu ninduten burdinazko kutxa haiek, eta egur edo harrizko konstrukzioek, hain ziren elkarrengandik diferenteak, baina, aldi berean, hain zeuden txertatuak "familia eite" fermu batez, arazoz betetakoa izan arren. Ondorioz, urte gutxi batzuen buruan, gogoan dut, Oteizaren Quosque Tandema, haren teoria lanik behinena, izan zela liburu serioetatik erosten lehenetakoa. Zehazkiago esatera, Txertoak 1975an argitara eman zuen bigarren edizioa eskuratu nuen, azal laranja bizi-butano kolorezkoa, jada desagertu den Gipuzkoa plazako liburu-denda txikiko erakusmahaian gainontzekoen artetik nabarmentzen zena. Oteizaren eskulturen aitzin ikusketa zuzena, ia segurtasun osoz, Arantzazuko santutegiko elizaren fatxadako apostolatuan izan zen, nora garaiko gazteak ohiko genuen igotzea, gure buruak konspirazio politikoaren ametsari eta naturaren gozatzeari, lurraren nazionalismo arrunt eta asaldatuak bustita, eskainiak. Baina ustea dut, aurretik ere haren eskulturarik ikusteko aukera izan nuela, Fuenterrabiko (gaurko Hondarribia: garai hartan guztiok esaten genion hala, eta ez dut inolako arrazoirik ikusten horrela esaten ez jarraitzeko) etxe bateko lorategian egin zen eskultura erakustaldi apurtzaile batean (ikusle asko indignaturik ateratzen ziren), zenbait urte lehenago udako iganderen batean gurasoekin joan nintzen batean.

Nire kasuan ez zen teoria izan arte modernoarekiko, eta zehazkiago Oteizaren obrarekiko, interesa piztu zuena, esperientzia askozaz ere zuzenago, xaloago eta emotiboagoa izan zen, laburtze aldera zerbait aldi berean urrun eta misterioski urrekoaren ezusteko deskubrimendu kontsidera dezakeguna. Estetek "esperientzia estetiko" deitzen genion hura izango zen. Kuestioa, artelanean edota edozein objektutan –paisaia ikaragarri batetik pertza batera– gauzaren presentzia materiala erabat gainditzen duen sentsazio, emozio, kontzeptu edo pertzepzioak jasotzean datza, gauzarengandik at diruditen punturaino, gauzaren gain edo gauzari loturik baina aldi berean libre eta independenteak. Bada hortaz, halakorik aurkitu nuen "abangoardiako euskal eskultura" bezala aurkezten zitzaizkigun objektu zalantzarik gabe arraro baina erakargarritasun ukaezineko haietan.

Egun, Oteiza eta Chillidaren lanak objektu familiar gisara ez tratatzera tematzen direnak oraindik geratzen badira, jada iragan gertukoenaren ikono errepresentatibo izanik baina iragan azken finean, imajinazazue 1970 eta 1975 artean gertatzen zena, hau da, nire ebokazio neketsu eta zalantzazko honen garaian. Noski, inortxok ere ez zuen garaiko ikasle gazteak artearen misterioetan murgilt-

Si todavía hay quienes se resisten a aceptar como objetos familiares los trabajos de Oteiza o Chillida, que en realidad ya son iconos representativos del pasado más reciente, pero pasado al fin y al cabo, imagínense lo que pasaba entre 1970 y 1975, que es la época de mi trabajosa y dubitativa evocación. Por supuesto, a la mayoría de los jóvenes estudiantes de entonces nadie se había molestado en introducirnos en los misterios de aquellas cosas del arte, y menos si era "vasco". Vasco era un predicado atribuible a multitud de cosas, pero nunca a una escultura. Los vascos podían ser empresarios, futbolistas, curas o pastores, pero no artistas.

En el colegio donde yo estudiaba, y para los adultos corrientes con los que trataba, Picasso era todavía el no va más de la audacia artística, puro límite de lo tolerable, sobradamente traspasado para muchos. En las exposiciones que podían verse en San Sebastián por aquellos años, dominaban las obras vagamente neo o posimpresionistas, que generalmente presentaban una temática de imágenes naturalistas (paisajes) o simbolistas (normalmente de asuntos vascos subidamente folklóricos). Los Zubiaurre, Arteta o Vázquez Díaz representaban las fronteras de lo razonable para la gente de bien, y Zuloaga era el paradigma del arte vasco posible y plausible. De manera que estoy seguro de que mi enamoramiento de los artefactos de Oteiza y los otros "escultores vascos" no procedía de ninguna predisposición académica ni de una moda popular. Recuerdo muy bien la indignación ciudadana que provocó la colocación de un relieve de Remigio Mendiburu en una fachada de la Avenida de la Libertad donostiarra, entonces llamada de España: los elegantes tubos de bronce que componen su armoniosa composición eran conocidos como "los chorizos", o incluso "los mocordos" o "mokordo-enea". Así eran las cosas. Y la extrañeza general ante el Peine del Viento que Eduardo Chillida puso casi gratis al final de Ondarreta, en los acantilados de Igueldo, en la actualidad otro icono del narcisismo donostiarra pero entonces poco más que unos hierros retorcidos oxidados incomprensibles, rudos y antipáticos. Sólo la alta cotización y los éxitos internacionales de Eduardo Chillida (nunca se escribía "Txillida") ayudaban a moderar los sarcasmos y predisponer hacia la admiración.

Armado pues de estos sentimientos de genuina admiración contracorriente, intentaba procurarme cualquier información sobre arte contemporáneo y sobre Oteiza y los otros escultores vascos en particular. El precario nacionalismo vagamente cultural que dominaba abrumadoramente entre los jóvenes politizados del final del franquismo ayudó también lo suyo a orientar mi búsqueda hacia los arcanos oteicianos. Más que leer, devoré el Quosque Tandem, y como les pasó a otros muchos, quedé profundamente convencido de que aquel libro revelaba verdades trascendentales en su abigarrada síntesis de vasquismo radical, arte de vanguardia y pensamiento moderno, justamente la mezcla que algunos




zearen molestiarik hartzen, are gutxiago "euskalduna" izanik. Euskaldun hitza gauza askori zegokion, baina sekula ez eskultura bati. Euskaldunak izan zitezkeen enpresa-gizon, futbolari, apez edo artzain, baina ez artista.

Nik ikasten nuen eskolan, eta tratua nuen heldu arruntentzat, artean Picasso zen atrebimendu artistikoaren maila gorena, onargarri denaren muga garbia, askoren iritziz muga sobera gainditua. Urte haietan Donostian ikus zitezkeen erakusketetan, obra lausoki neo edo postinpresionistak ziren nagusi, orokorrean irudi naturalista (paisaiak) edo sinbolisten (normalean euskal gai erabat folklorikoak) tematika jorratzen zutenak. Zubiaurre, Arteta edo Vázquez Díaz ziren onargarritasunaren muga pertsona zintzoentzat, eta Zuloaga zen arte euskaldun posible eta txalogarriaren paradigma. Hortaz, ziur naiz Oteiza eta gainontzeko "euskal eskultoreen" tramankulu haiekiko nire maitemintzeak ez zuela inolako erlaziorik predisposizio akademiko edo inongo moda popularrekin. Oso gogoan dut Donostiako Askatasunaren Hiribideko, Espainiakoa garai hartan, fatxada batean Remigio Mendibururen erliebe bat jartzeak eragin zuen indignazio hiritarra: haren konposizio harmoniatsua osatzen duten brontzezko tubo dotoreek "los chorizos", "los mokordos" edo "Mokordo-enea" izenak jaso zituzten. Horrela ziren gauzak. Baita Eduardo Chillidak Ondarretaren amaieran, Igeldoko itsaslabarrean, ia dohain jarri zuen Haizearen Orraziarekiko harridura orokorra ere, egun nartzisismo donostiarraren beste elementu bat bihurtua den arren, artean herdoietan bihurritutako burdin ulertezin, zakar eta antipatikoak baino ez baitziren. Eduardo Chillidaren (inoiz ez zen Txillida idazten) kotizazio altu eta nazioarteko arrakasta soilik lerratzen ziren sarkasmoa leuntzera eta gorespenerako predisposiziora.

Korrontez kontrako miresmen sentimendu benetakook soinean hartuta ekin nion arte garaikidea, Oteiza eta gainerako euskal eskultoreekiko edonolako informazioa biltzeari. Frankismoaren hondarretako gazte politizatuen artean erabat nagusi zen nolabaiteko nazionalismo lausoki kulturalak ere berea egin zuen nire bilaketa Oteizaren ezkutapenetara bideratzerakoan. Irakurri baino, irentsi egin nuen Quosque Tandema, eta askori gertatu bezalatsu sakonki konbentzitu ninduen liburu hark, euskaltzaletasun erradikal, abangoardiako artea eta pentsamendu modernoaren arteko sintesi nahasi hartan egia transzendentalak zituenaz; grina sano eta zori eskasez zenbaitzuk bila genbiltzan nahasketa, hain juxtu. Izan ere, Euskadi mundu mailako artearen eta pentsamenduaren abangoardian jarriko zuen euskal berpizkunde kultural berehalako baten etorrera predikatzeko Oteizaren esfortzuak esfortzu, egia esatera garai kide gutxi ziren haren anbizioa eta sakontasuna zutenak. Euskal poetak zeuden batetik, Gabriel Aresti eta Xabier Lete esaterako –guztiok ikasten genuen euskara mediorik gabeko urte haietan, arrakasta desberdinez–, eta noski gazteleraz aritzen ziren euskal poeta handiak,

buscábamos con saludable ahínco y escasa fortuna. En efecto, a pesar de los esfuerzos de Oteiza por predicar el advenimiento inminente de un renacimiento cultural vasco que pondría a Euskadi en la vanguardia del arte y el pensamiento mundial, lo cierto es que muy pocos coetáneos podían competir en ambición y profundidad con Oteiza. Estaban los poetas en euskera, como Gabriel Aresti o Xabier Lete –todos estudiábamos euskera en aquella época sin medios, con mayor o menor éxito–, y desde luego los grandes poetas vascos en castellano, como Gabriel Celaya y Blas de Otero, los novelistas vascos en castellano, como Martín-Santos o Aldecoa, no nos interesaban a la mayoría. Añadamos numerosos músicos variados, entre los que descollaban, para el gusto vanguardista, los hermanos Arze y Mikel Laboa. Oskorri y muchos otros grupos menores componían la faceta pop del movimiento, que también podía exhibir el realismo abertzale-socialista de los Gontzal Mendibil y compañía. El frente artístico en particular quedaba enriquecido con Balerdi, Zumeta, Amable Arias, Goenaga, Ameztoy, Ibarrola y unos cuantos más. Chillida era un gran escultor que a muchos jóvenes nos parecía eso, sólo un escultor que no colmaba el papel de liderazgo político-cultural que esperábamos del arte de vanguardia.

Por aquel entonces no era fácil reconocer el derrotero que estaba tomando la cultura y la política vasca, esto es, la tendencia imparable y despiadada a imponer la hegemonía del nacionalismo –cuanto más radical, mejor– y el arrinconamiento, negación o persecución de todo lo demás. Incluso Gabriel Aresti o el grupo Oskorri sufrían brutales ataques por el "españolismo" atribuido a cualquier marxista. Si alguien era suficientemente lúcido para advertir aquella degeneración, sencillamente no era escuchado. Para muchos de nosotros, el nacionalismo era la concreción necesaria de un sentimiento fuertemente vasquista, pero de difusos contornos ideológicos y confusas estrategias políticas. ETA nos parecía un grupo si no admirable –algunos estábamos también influidos por el cristianismo progre a lo Mounier, y no apoyábamos la violencia–, sí digno de todo respeto.

Contra lo que pueda parecer hoy, esa cultura emergente en cuyo centro Oteiza parecía reinar con sus imaginativas estrategias, no era apenas una cultura reprimida, y desde luego no padecía ninguna persecución sistemática. Había, desde luego, prohibiciones y censuras, pero no mayores ni más permanentes que las padecidas por cualquier sector, grupo o persona desafecta o sospechosa para el régimen. El único artista vasco importante realmente perseguido con saña era Agustín Ibarrola, y eso más por su valerosa militancia comunista que por cualquier otro motivo.

Lo cierto es que el vasquismo cultural fue tolerado bajo el régimen, sobre todo tras la relativa "apertura" iniciada más o menos a partir de 1959, y promovido por instituciones tan poco aventureras como las diputaciones provinciales,





Gabriel Celaya eta Blas de Otero, gazteleraz aritzen ziren nobelagileak, Martín-Santos eta Aldecoa, gehiengoari interesatzen ez zitzaizkigunak. Gehi ditzagun hainbat musikaren izenak, gustu abangoardiazalearentzat Mikel Laboa eta Artze anaiak gailentzen zirelarik. Oskorri eta beste hainbat talde txikik mugimenduaren pop alderdia osatzen zuten, Gontzal Mendibil eta enparauen errealismo abertzale-sozialista ere ager zezakeena. Fronte artistiko partikularra Balerdi, Zumeta, Amable Arias, Goenaga, Ameztoy, Ibarrola eta beste zenbaitek aberasten zuten. Chillida eskultore bikain bat zen, gazte askorentzat horixe besterik ez, eskultore handi bat, arte abangoardiakoarengan espero genuen lidertza politiko-kulturala asetzen ez zuena.

Artean ez zen erraza euskal kultura eta politikak zeramaten bideari antzematea, hau da, nazionalismoaren hegemonia ezartzera –gero eta erradikalago, hainbat hobeto– zeraman bide geldiezin eta ankerra, eta gainontzeko guztiaren bazterketa, ukazioa eta jazarpena. Oskorri edota Gabriel Arestik ere jasan zituzten eraso gogorrak edozein marxistari egozten zitzaion "españolismoagatik". Baten batek degenerazio guzti hari antzemateko nahikoa buru-argitasun bazuen, ez zen entzuna izaten, besterik gabe. Gutako askorentzat, nazionalismoa euskaltzaletasun sentimendu sakon baten beharrezko konkrezioa zen, baina inguru-mari ideologiko lauso eta estrategia politiko ilunekoa. Gure irudiko, ETA talde miresgarri ez izanik ere –zenbaitzuk Mournieren erako kristautasun progre batek ere eragiten gintuen, eta ez genuen indarkeria hobesten– errespetu osoaren duina zen.

Gaur pentsa daitekeenaren kontra, Oteiza eta haren irudimen handiko estrategien inguruan azaleratzen ari zen kultura hau ez zen apenas kultura erreprimitu bat, eta jakina, ez zuen inolako jazarpen sistematikorik jasaten. Noski bazirela debeku eta zentsurak, baina ez erregimenaren aurkako edo susmagarri gerta zitezkeen beste talde edo pertsonek pairatutakoak baino gotorrago edo iraunkorragoak. Benetako jazarpen ankerra jaso zuen euskal artista garrantzitsu bakarra Agustin Ibarrola izan zen, eta haren militantzia komunista ausartagatik beste edozergatik baino.

Kontua da, euskaltzaletasun kulturala toleratua izan zela erregimen pean, 1959an hasi eta gauzatuz zioan nolabaiteko "apertura" hartatik aurrera bereziki, abentura zaletasunik batere ez zuten erakundeek –aldundiak, udal turismoko bulegoak eta aurrezki kutxak, esaterako– sustatuak. Oteiza berak, Santanderren, frankismoaren politika kulturalaren luxuzko eskaparate baino ez zen Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatean, "arte abstraktuari" buruzko eskolak ematea onartu zuen. Frankoren gobernuek aurkitu zuten Saura, Tápies, Oteiza edo Chillida bezalako artistek gidatuta ematen ari zen arte garaikidearen goren aldia beren onuran ustiatzeko formula, bereziki atzerrian –Sao Paulo, Venezia eta gai-

los centros de turismo municipal y las cajas de ahorro. Incluso el propio Oteiza aceptó impartir en Santander cursos de “arte abstracto” en la Universidad Internacional Menéndez Pelayo, escaparate de lujo de la política cultural del franquismo. Los gobiernos de Franco encontraron la fórmula para explotar en su propio beneficio el auge del arte contemporáneo liderado por artistas como Saura, Tàpies, Oteiza o Chillida, fenómeno presentado, sobre todo en el extranjero –en las grandes bienales de Sao Paulo, Venecia y similares–, como una muestra de la supuesta libertad de ideas y creación de que se podía disfrutar en la España franquista... siempre que uno no se metiera en política (algo semejante a lo que pasa en la Euskadi actual controlada por el nacionalismo). De estas fuentes semioficiales y oficiosas provino mucho del vasquismo cultural que insensiblemente fuimos mamando en una ciudad que todavía en 1970 recibía con regocijo mayoritario, a pesar de su pasado liberal y republicano, el desembarco estival de Franco desde el yate Azor, tranquilamente anclado en la bahía de La Concha.

Así pues, aunque mi admiración e interés por Oteiza comenzó en las fotografías multicolores de un calendario de la Caja de Ahorros provincial que pendía en la pared de la cocina materna –guardé las fotografías cuidadosamente recortadas durante muchos años–, este interés o deslumbramiento inicial quedó potenciado, para bien y para mal, por la inmersión en la confusa mezcla de protonacionalismo, cosmopolitismo cultural y compromiso político –naturalmente, antifranquista– en el que nos sumergimos alegremente tantos cándidos e inquietos pero desinformados jóvenes de mi generación. Porque Oteiza ofrecía precisamente todo aquello que buscábamos, y por ende era un personaje accesible, cuyas puertas y tiempo estaban generosamente abiertas y disponibles para todo aquel que buscara consejo, ideas y estímulo.

**4. El titán en su retiro**

En 1975 estudiaba el COU en un colegio privado de la Iglesia decididamente vasquista, el Larramendi, ubicado en el enorme y casi desierto seminario diocesano, estábamos en plena “crisis de vocaciones”, como llamaban a la secularización en la prensa del régimen, tan pía y ortodoxa. En el colegio Larramendi había un clima sensiblemente más cultivado que en el anterior de los corazonistas de Mundaiz, en general bastante cavernícolas. Contaba con la espléndida biblioteca del seminario, generosamente dotada de libros de arte llenos de obras de los artistas que tanto me fascinaban. Y además, de la literatura etnográfica –Barandiarán, Caro Baroja, Altuna y compañía– que parecía necesaria para desentrañar las lucubraciones del Quosque Tandem, que para entonces ya había devorado y ofrecido a muchos amigos –sin mucho éxito, digámoslo en su favor– como la obra profética de nuestra generación. Ahora puede parecer casi tan chocante como las elevadas conversaciones de los jóvenes del Doktor Faustus de Thomas Mann, pero los jovenzuelos de aquel entonces, al menos unos cuantos,




nontzeko bienal garrantzitsuetan– Espainia frankistan goza zitekeen ideia eta sortze askatasun balizkoaren erakusgarritzat aurkezten baitzen fenomenoa... betiere inor politikan sartzen ez zen heinean (nazionalismoak kontrolatutako gaurko Euskadin gertatzen denaren pareko). Iturri semiofizial eta ofiziosootatik hornitzen zioan ia konturatu gabe jasotzen ari ginen euskaltzaletasun kulturala, 1970an oraindik, iragan liberal eta errepublikazalea zuen arren, Azor ontzia Kontxako badian lasaitasun osoz ainguratutik Frankoren udako lehorreratzea gehiengoaren zoramenaz txalotzen zuen hirian.

Hortaz, Oteizarenganako nire miresmena amaren sukaldean zintzilik zetzan Aurrezki Kutxa probintzialeko kalendario bateko argazki koloreanitzetan hasi bazen ere –urte luzetan zehar gorde ditut argazkiak, arreta handiz ebakiak–, aitzin deskubrimendu eta lilura, onerako edo txarrerako, gure generazioko hainbat gazte xalo, kezkaz bete baina desinformatuak kemen handiz murgildu ginen protonazionalismo, kosmopolitismo kultural eta konpromezu politikoaren –esan beharrik ez dagoenez, antifrankista– arteko nahaspilan sartzeak potentziatua izan zen. Oteizak bilatzen ari ginena eskaintzen baitzuen, eta gainera pertsonai hurbilekoa baitzen, ate eta denbora beti zabalik eta eskura zituena gomendio, ideia edo estimulu bila gerturatzen zen ororentzat.

**4. Titana bere erretiroan**

1975an COU ikasten nenbilen ni, Eliza aski euskaltzalearen eskola pribatu batean, Larramendin, elizbarrutiko seminario ikaragarri eta kasik hustuan kokatua zegoena, erregimenaren prentsak, hain zen jainkozale eta ortodoxoa, sekularizazioari zeritzon "bokazio krisi" bete-betean ginen. Larramendi ikastetxean, aurretik izan nintzen Mundaizeko klaretarretan, orokorrean nahikoa kabernikolak, baino giro zertxobait jantziagoa bizi zen. Seminarioko biblioteka bikaina zuen, horrenbeste liluratzen ninduten artisten obraz betetako arte liburuz ongi hornitua zegoena. Eta hortaz gain, baita literatura etnografikoaz ere –Barandiaran, Caro Baroja, Altuna eta besteak– Quosque Tandemaren (ordurako irentsia nuen eta hainbat laguni eskainia –arrakasta handirik gabe, beraien alde– gure generazioaren obra profetiko gisara) hausnarketak argitzeko beharrezko zirudiena. Gaur egun, Thomas Mann-en Doktor Faustus-eko gazteen hitz-aspertu jasoak bezain harrigarri gerta datekeen arren, garai hartako gaztetxoek, batzuek behintzat bai, Hermann Hesse, García Márquez, Kafka, Córtazar, Brecht edo Becketten liburuak elkarri utzi eta grinaz eztabaidatzen genituen, Lovecraft eta antzekoen irakurketekin gozatuak. Seminarioko biblioteka argiz bete eta liburuz gainezkako hartan, edozein ladrillo etnografiko, Le Monden irakurketarekin tarteka zitekeen, guretzat egunero iristen zen modernitate zirraragarri eta urrunekoa.

Oteizaren gauzekiko zaletasuna gehituz zioan, bada, biblioteka eta irakas-

nos prestábamos y discutíamos con fruición libros de Herman Hesse, García Márquez, Kafka, Cortázar, Brecht o Beckett, sazonados con lecturas de Lovecraft y similares. Y en la luminosa y rebosante biblioteca del seminario se podía alternar la lectura de cualquier ladrillo etnológico vasco con la para nosotros vertiginosa y remota modernidad de Le Monde, que llegaba a diario.

Mi fervor por las cosas de Oteiza no hizo sino crecer, nutrido por el abundante alimento de la biblioteca y por aquellos profesores muy vascos y vasquistas, además de por algunos compañeros mucho más avezados que uno en lides patrióticas. Uno de ellos, miembro de ETA, estaba implicado en el secuestro de Angel Berazadi –asesinado en abril de 1976– y huyó de la policía refugiándose en Francia, desencadenando una marea de solidaridad incondicional en nuestro patriótico rebaño de adolescentes. Éramos tan exaltadamente partidarios del más exacerbado abertzalismo que yo mismo defendía, contra las objeciones de profesores que hoy encontraría más talibanes que otra cosa, las más descabelladas proposiciones y delirios étnicos, derivados de las abundantes lecturas del gremio y nuestra escasísima preparación para la crítica. Hacer del euskera nuestra única lengua e imponérsela a todo el mundo nos parecía no sólo una opción moderada, sino de pura justicia y un acierto evidente. Por fortuna, no tuvimos la oportunidad de experimentar la puesta en práctica de aquellos desvaríos, aunque buena parte de los lodos actuales proceden de aquellos polvos, nada eróticos, por otra parte.

Mi fascinación por Oteiza no hizo sino aumentar cuando percibí algo que sólo entendí mucho más tarde: el escultor de Orio había fabricado la estética ideal para un adolescente semi cultivado y descentrado del tenebroso País Vasco de entonces. Quiero decir con esto que alguien más protegido por un conocimiento más profundo de, por ejemplo, el arte contemporáneo o la filosofía, no habría sucumbido tan fácilmente a esa seducción. En cierto modo, aquella fascinación era la consecuencia de una educación humanística deficiente, incapaz de colmar el hambre de saber y novedades.

Con todo esto, decidí convertir a Oteiza en objeto y sujeto preferente en mis estudios superiores. Cuando en el verano de 1976 me matriculé para cursar Historia en los EUTG –la sucursal guipuzcoana de la Universidad de Deusto–, tuve la dicha de conocer algunos compañeros de estudios que compartían mi afición oteiciana: Fran Lasuen y Aitor Arrizabalaga. El primer trabajo serio que escribimos lo hicimos en común –éramos, desde luego, ferozmente antiindividualistas– y trataba sobre nuestro héroe. Para nuestra decepción, los profesores de historia del arte habían detenido sus intereses artísticos en el siglo XIX, o eso nos parecía. El trabajo fue retribuido con un notable muy peleado porque los autores éramos tres, pero nos sirvió de pretexto para peregrinar hasta la persona de Jorge Oteiza. El más audaz y relacionado de nosotros consiguió el teléfono y



le oso euskaldun eta oso euskaltzale haiek eman bazka oparoaz gainera, zeregin patriotikotan neu baino zailduagoak zeuden zenbait adiskiderekin harremanak eraginda. Haietako bat, ETAkidea, Angel Berazadiren bahiketan inplikatua egon zen –1976ko apirilean eraila izan zena–, eta poliziarengandik ihes egin zuen Frantzian babestera; nerabe artalde patriotiko hartan baldintzarik gabeko solidaritate uholdea eragin zuen hark. Hain zen gehiegizkoa gure abertzaletasuna ezen, egun taliban hutsak kontsideratuko nituzkeen irakasleen irizpideen aurka, neronek ere proposizio eta delirio etnikorik eroenak defendatzen bainituen, gremioko irakurketa ugarien eta kritikarako gure ahalmen eskasaren ondorio. Euskara gure hizkuntza bakar egin eta mundu guztiari inposatzeari, aukera moderatua ez ezik justiziazkoa irizten genion, eta ageriko egokitasun. Zorionez, ez zen erokeria haiek praktikan jartzeko aukerarik izan nahiz eta gaur egungo egoera nahaste borraste haren ondorio den.

Oteizarenganako nire lilura handitu baino ez zen egin, askoz beranduago soilik ulertu nuen zerbait antzeman nuenean: garaiko Euskal Herri goibeleko nerabe erdi-ikasi eta deszentratu batentzako estetika aproposa eraiki zuela Orioko eskultoreak. Esan nahi baita, arte garaikidea edo filosofiaren, esaterako, ezagutza sakonago baten abarora ez zela horren erraza izango sedukzio hartan erortzea. Nolabait ere, ezagutza eta berritasun gosea asetzeko gauza ez zen edukazio humanistiko urri baten ondorio zen lilura hura.

Guzti hau dela-eta, nire goi-mailako ikasketen lehentasunezko objektu eta subjektu bihurtu nuen Oteiza. 1976ko udan EUTGan (Deustuko unibertsitatearen sukurtsal gipuzkoarra) Historia ikasketetan matrikulatu nintzenean, Oteizarenganako afizioa zuten ikaskide batzuk ezagutzeko zortea izan nuen: Fran Lasuen eta Aitor Arrizabalaga. Idatzitako lehen lan serioa batera egin genuen –irmoki antiindibidualistak baikinen– eta gure heroiari buruzkoa izan zen. Gure etsipenerako, artearen historiako irakasleek beren interes artistikoak XIX. mendean utzi zituztela zirudien, gure aburuz bederen. Lana oso ongi hagitz borrokatu batekin (autoreak hiru izaki) saritua izan zen, baina Jorge Oteizarengana hurbiltzeko aitzakia izan zen. Gutako ausarten eta harreman gehien zuenak haren telefonoa lortu eta zita bat hitzartu zuen. Aldez aurretik gure elukubrazio sutsuaren kopia bat igorri genion, bertan artistak eta haren obrak bere herrian bertan bizi zuen bidegabeko marjinazio eta ahanztura lotsagarria aipatuz. Iritsia zen egun handia, eta ondikoz, Zarautza eraman behar ninduen autobusa galdu nuen. Etsipena beste zita batek osatua izan zen.

Iritsia zen, bada, elkartze-egun gutiziatua. Oteizak, bere emazte Itziarrekin denboraldi luzeak igarotzen zituen Zarauzko apartamentu merke batean hartu gintuen. Artean nekatua zirudien Itziarrek, nazionalista aski klasikoa –kontserbadorea, katolikoa, senar zailarekin pairamen handikoa–, bere erretiroa inbaditzen zuten tipo bitxien joan etorriez nekatua, erabat ulergarri dena;

concertó una cita. Previamente le remitimos una copia de nuestra fervorosa elucubración, donde nos hacíamos eco de la injusta marginación y el escandaloso olvido que padecían el artista y su obra en su propio pueblo. Llegó el gran día y, horror, perdí el autobús que debía llevarme a Zarauz. La decepción quedó compensada con otra cita posterior.

Llegó, pues, el día del ansiado encuentro. Oteiza nos recibió en un apartamento barato de Zarauz, donde pasaba largas temporadas con Itziar, su mujer. Por aquel entonces Itziar, una nacionalista de lo más clásico –conservadora, católica, toda abnegación con un marido difícil–, parecía estar más que justificadamente harta de las idas y venidas de sujetos extravagantes que invadían su pequeño retiro y lo convertían en una mezcla de café carbonario y cenáculo euskodadaísta donde se urdían toda clase de extrañas conspiraciones. Recuerdo que Itziar abrió la puerta cuando llamé y me espetó a través de sus gafas negras: "¿y tú a que vienes, a la revolución cultural o a la otra?" Desde el interior, Oteiza bromeó a grito pelado, asegurando que Itziar pretendía secuestrarle para impedir sus contactos con los jóvenes, y que era una espía a sueldo de Ramón Labayen, bestia negra del artista y pronto consejero de cultura por el PNV en el Gobierno Vasco.

Oteiza nos condujo a su guarida, un despacho abarrotado por una enorme mesa de trabajo llena de papeles, libros y objetos –incluyendo una gran caja de puros– que apenas dejaba sitio a su silla y algunas más para las visitas. Por el resto del suelo había cajas y cosas, y en la pared reinaba una gran pizarra negra llena de apuntes y diagramas con aspecto de enigmáticas fórmulas químicas y diagramas matemáticos, a los que era muy aficionado para resumir gráficamente sus ideas. También le divertía sobremanera abordar sus planes como si se trataran de operaciones militares ejecutadas por un ejército clandestino que él mismo comandaba desde la sombra. Por lo demás, su presencia física era bastante impresionante. Una voz seductora y enérgica comunicaba incesantemente entusiasmo, desaliento, ira o sarcasmo, cualquiera de los sentimientos que creyera necesario expresar, los sintiera o no. Sin duda había mucho de histrionismo, pero de un histrionismo muy auténtico y vivido, y además tremendamente divertido para el artista y sus incondicionales.

